



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko azaroaren 23an

90 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Nafarroako 1999-2002 lau urteko Estatistika Planari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).
- Foru Legea, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegileko IX. Tituluko II. Kapituluak aldatzen duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioei buruzko Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen. Osoko Bilkurak onetsia (22. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (28. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosako barrutiko derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzako ikasleak Eskola Garraioari buruz egiteke dagoen Planean sar ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (29. or.).
- Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat jarduketa burutu dezan N-232 errepidean, Castejondik Cortesa bitartean. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak onetsia (29. or.).
- Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da, hondakin toxikoak edo/eta arriskutsuak erretzeko jarduerentzako baimenik eman ez dezan. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsia (30. or.).
- Ebazpena, Augusto Pinochet Chileko jeneralaren estradizioari buruzkoa. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsia (30. or.).

H SAILA:

Bestelako Testu Arau Emaileak:

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 54. artikulua aldatzeko proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (32. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza, Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.24. artikuluan ezarri dena betez, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa du Merkataritza eta Industria Ganberari dagokionean; hori horrela da legedia orokorraren oinarritzko abiaburuekin bat eta Estatuak kanpo merkataritzaren alorrean dituen eskumenak deusetan ukatu gabe.

Eskumen horren itzalpean egunera arte eman den foru legedia Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren finantzaketa arautzeko baino ez da izan.

Horrela, bada, arlo horretan eman zen lehenbiziko Foru Legeak, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren finantzaketari buruzko abenduaren 31ko 45/1983koak -geroago eman ziren 1987 eta 1989ko ekitaldietako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeen bidez aldarazi egin zenak, alegia-; baliabide iraunkorra deritzona ezarri zuen Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren alde; delako baliabide hori Sozietateen gaineko Zergaren eta Lizentzia Fiskalaren kuoten eta Pertsona Fisikoen

Errentaren gaineko Zergaren etekinen kuoten gaineko portzentaian datza.

Alorrean eman zen bigarren testua apirilaren 4ko 6/1995 Foru Legea izan zen; lege horrek Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari dagokion ganberaren baliabidea arautu zuen eta xedea ganberaren baliabide iraunkorren munta berriak ezartzea eta Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera Ofizialei buruzko martxoaren 22ko 3/1993 Oinarritzko Legeak ezarri zituenegi egokitzea izan zen -Lizentzia Fiskalari zegokiona salbu-; kasu honetan helburua zergadun nafarrek araubide amankomuneko zergadunekiko zuten kontrako bereizkeria saihestea zen eta,aldi berean, aplikagarria zen araubide juridikoa araupetzea.

Hori guztia gorabehera, arestian aipatu den Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera Ofizialei buruzko martxoaren 22ko 3/1993 Oinarritzko Legeak osorik ezarri zuen zuzenbide publikoko korporazio horiek bete behar duten araubide juridikoa eta, halaber, Estatuan arlo hori buruz dagoen legedia orokorraren oinarritzko gidalerroak ezarri zituen.

Beraz, honako Foru Lege honen funtsezko xedea, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak bete behar duen esparru juridikoa arautegi bakarrean ezartzea da, beti ere Estatu eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko eskumenen banaketaren abiaburua erabat betez.

Helburua hori dela, Foru Legeak sei titulu ditu.

I. Tituluaren idazpurua "Xedapen Orokorrak" da eta horretan Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofiziala eratuko duten funtsezko ardatzak ezarri dira. Horrela, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean ganbera bakarra ezarri du eredu, eskualdeko edo udal mailako ordezkariak sortzea gorabehera; testuan azaltzen den definizioaren arabera zuzenbide publikoko korpo-

razioa da, berariazko nortasun juridikoa eta bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasun osoak ditu. Halaber, administrazio publikoentzat kontsultak egiteko eta lankidetzarako organoa ere bada eta helburu horietarako eginkizun publiko eta administratibo batzuk ere esleitu dizkio. Horiek burutzeko Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioaren itzalpean egonen da eta, hala denean, Estatuko administrazioaren itzalpean eta, hori guztia, helburutzat dituen interes pribatuak bazter utzi gabe.

II. Tituluan Ganberaren osaera, antolakuntza eta funtzionamendua garatu dira, eta gobernu organoen osaera, hautespena eta horien eskurantzak ezarri ditu, hau da: Osoko Bilkura, Batzorde Betearazlea eta Ganberaburua; titulu honetan zehaztutako horiek Estatuko oinarritzako legediak ezarri duen funtzionamendu demokratikoaren oinarriak betez egiten dela adierazi da; halaber, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialeko langileei buruzko beste alderdi batzuk landu ditu.

III. Tituluak Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren hauteskunde araubidea araupetu du; eroldaren osaketa ezarri du, hautespen aktiboa eta pasiboaren eskubideak burutzeko beharrezkoak diren beharkizunak eta hauteskunde prozedurari buruzko arauak zehaztu ditu.

IV. Titulua araubide ekonomikoa eta aurrekontuei buruzkoa da; testu horretan Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak bere jarduerak finantzatzeko izanen dituen bitarteko ekonomikoak adierazi dira; haren aurrekontu eta kontuen kontrol sistemak eratu dira, eta esaten da horien onespena Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioari dagokiola, zertarako-eta baliabide publikoen esleipen ekitatiboa eta era egokian programatu eta betearaziko direla bermatzeko; halaber, Kontuen Ganbarari eman dio ganberaren baliabide iraunkorraren etekin gisa jaso dituzten zenbatekoen destinoa fiskalizatzea, bere barne-araudiarekin bat.

V. Titulua osorik da ganberaren baliabide iraunkorrari buruzkoa; ia inolako aldarazpenik gabe islatu du apirilaren 4ko 6/1995 Foru Legearen edukia baina, dena dela, alde batetik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokion ordainarazpenaren portzentaia gutxitu eta estatuko legedian ezarri denari egokitu dio, kasu honetan helburua hautesle nafarren egoera araubide amankomuneko hautesleen egoera baino astunagoa ez izatea dela; halaber, arestian aipatu den ganberaren baliabidearen araupeketara osatu du.

Azkenik, VI. Tituluak, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren araubide juridikoa araupetu du eta jarduera betetzea Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioaren itzalpean jarri du eta, hala denean, Estatuko administrazioarenean. Halaber, Ganberak dituen eskumen publiko eta administratiboak betearaziz eman dituen ebazpenen aurkako errekurtsoen araubidea ezarri du. Ezarri du Ganberak Nafarroako Foru Komunitateari gobernu organoek hartzen dituzten erabakien informazioa emateko betebeharra duela; bere jarduera eteteko aukera aurreikusi du eta, baldintza zehatz batzuk gertatuz gero, baita desegitea ere.

I. TITULUA Xedapen Orokorrak

1. artikulua.- Aplikazio eremua.

1. Honako foru lege hau Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari aplikatuko zaio; ganbera hori izanen da Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean egonen den bakarra.

2. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak ordezkariak ezar ditzake Nafarroako eskualde eta udalerrietan baldin eta horietan burutzen den jarduera ekonomikoak horrela egitea aholkatzen badu.

2. artikulua.- Izaera juridikoa eta eskumenak.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofiziala zuzenbide publikoko korporazioa da, nortasun juridikoa du eta bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasun osoa; administrazio publikoaren aholkularitza eta lankidetzarako organo bezala taxutu da, baina erdietsi nahi dituen interes pribatuak alboratu gabe. Ganberaren egitura eta funtzionamendua demokratikoak izanen dira.

2. Sindikatuetako eta enpresarioen elkarteetako kide izateko askatasuna eta legez eraturak dauken gizarteko beste talde batzuek egin ditzaketen jarduketak gorabehera, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari dagokio jarraian adieraziko diren eskumenak burutzea:

a) Foru Komunitateko merkataritza eta industriaren interes orokorrak eskuordetzea, sustatzea eta babestea.

b) Ganberako hautesleei informazio, prestakuntza, aholkularitza eta laguntza tekniko zerbitzuak ematea.

c) Legez eman zaizkion eginkizun publiko eta administratiboak.

d) Legeetan ezarri diren eran agindu edo eskuordetu zaizkion zerbitzu publikoak kudeatzea.

3. artikulua.- Eginkuzunak.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak jarraian adieraziko diren eginkuzunak ditu, izaera publiko eta administratiboa dutenak:

a) Indarrean dagoen arautegian ezarrita dauden kasuetan, jatorri-ziurtagiriak eta nazio edo nazioarte mailako merkataritzako trafikoari lotuta dauden gainerako ziurtagiriak luzatzea.

b) Nafarroako merkataritzako ohitura eta usadio arauemaileak biltzea -orobat, negozioren alorreko eginera eta usadioak-, argitaratzea eta hedaraztea, eta horien guztien izaerari buruzko ziurtagiriak luzatzea, .

c) Foru Komunitateko Administrazioari -kasu honetan Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren bidez-, eta, hala denean, Estatuari -kasu honetan eskumenak dituen Ministerioaren bidez-, merkataritza eta industria zuzperetzeko bidezkotzat jo ditzakeen eraldaketa edo neurriak proposatzea.

d) Administrazio publikoen aholkularitza organoa izatea; zeregin hori administrazio horiek ezarriko duten terminoetan burutuko da, eta merkataritza eta industriaren garapenaren ondoretarako eskatuko dioten informazioa eta laguntza emanen dizkie.

e) Kanpo merkataritza laguntzeko eta sustatzeko jarduerak egitea, bereziki esportazioa eta kanpoan Nafarroako produktu eta zerbitzuen presentzia bultzatuz. Horretarako, Estatuko legedian ezarri dena betez, Esportazioak Sustatzeko Ganberaren Plana prestatu eta burutuko du.

f) Foru Komunitateko Hezkuntza administrazioarekin lankidetzan aritzea Lanbide Heziketa arautuko irakaskuntzan sartzen den lantokietako prestakuntza praktikoaren kudeaketari dagokionean; bereziki, lantokien eta enpresen aukeraketa eta homologazioan eta, hala denean, ikasleen tutoreak izendatzerakoan, eta programazioan ezarri dena betetzen den ala ez kontrolatzerakoan.

g) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekin lankidetzan, enpresei laguntzak emateko programa publikoak tramitatzea, kasu bakoitzean ezarriko diren terminoetan, alegia. Halaber, aipatu diren laguntza horiei lotuta dauden zerbitzu publikoak kudeatzea dagokio, baldin eta kudeaketa hori Estatuaren administrazioari ez badagokio.

h) Ganberaren eremuan dauden enpresen eta haien establezimendu, ordezkariak eta agentzien

errola publikoa prestatzea; datu horiek eskatzen dituen pertsona orori bideratuko dizkio.

i) Merkataritzako arbitraje lanak egitea, hala nazio nola nazioarte mailan, beti ere indarreko legedian ezarri denarekin bat.

2. Halaber, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari dagokio jarraiko zerrendan azalduko diren eginkuzun publiko eta administratiboak garatzea; lan hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zehaztuko duen eran eta headurarekin egingen du:

a) Nafarroako merkataritza eta industriari buruzko estatistikak prestatzea, ebaluazio inkestak egitea, merkataritza eta industriako arlo guztien azterlanak egitea, baita horiek guztiak argitaratzea eta zabaltzea ere. Lan horiek Estadistika Funtzio Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean, Nafarroako Estadistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean eta aplikagarriak diren gainerako xedapenenetan ezarri dena betez egingen ditu.

b) Azoka eta erakusketen antolakuntza sustatzea eta horietan laguntza ematea.

c) Enpresaren alorrari dagokion prestakuntza ez-araupetua hedaraztea eta irakastea.

d) Enpresek, ikastetxe publiko zein pribatuek eta, hala denean, eskumenak dituzten administrazio publikoek antolatu dituzten prestakuntza iraunkorreko egitarauetan laguntzea, horretarako sinatuko diren lankidetzak hitzarmenetan ezarriko diren terminoetan.

e) Aurretiaz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emanen duen baimenarekin, kontratazio-lonjak eta birkontratazio burtsak sortzea eta administratzea.

f) Nafarroako Foru Komunitateak merkataritza edo industriaren interes orokorren alorrean prestatu dituen arauen proiektuei buruzko txostenak egitea; halaber, Txikizkako Merkataritzaren Antolamenduari buruzko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legean ezarri dena betez, txostenak prestatuko ditu tamaina handiko industria edo merkataritzako jardueren ezarpena xede duten lurraldearen antolamendurako tresnei buruz, eta merkataritzako establezimendu handiak ezartzeko espedienteei buruz.

g) Kasu bakoitzerako ezarriko diren terminoetan, enpresei laguntzak emateko egitarauen betearazpenean laguntzea eta horiei lotuta dauden zerbitzu publikoen kudeaketa egitea, baldin eta lan hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari badagokio.

h) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin lankidetzan aritzea, eta lurraldearen antolamenduaz eta industria- eta merkataritza-kokapenenaz eginen diren azterlan, lan eta ekin-tza guztien txostenak prestatzea.

3. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak, oro har, nolabait Nafarroako merkataritza eta industriaren sustapen eta defentsarako diren jarduera guztiak egin ditzake eta, bereziki, enpresei informazioa eta aholkularitza emateko zerbitzuak ezarri.

4. Eginkizun horiek guztiak era egokian betetzeko -eta, bereziki, nahitaezkoak direnak-, aldez aurretik Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioaren baimena eskuratu ondoren, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak era guztietako elkarteak, fundazioak eta sozietate zibil edo merkataritzakoak era ditzake edo horietan parte hartu, baita bidezko lankidetzaren hitzarmenak taxutu ere, beste merkataritza ganberekin.

4. artikulua.- Eginkizunak eskuordetzea.

1. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren eskuetan utz ditzake Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eginkizunak betetzea edo horri erantziki zaizkion jardueren kudeaketa.

2. Eskuordetza horrek, aurretiaz inguruabar teknikoak, ekonomikoak, gizartekoak, juridikoak edo lurraldearen alorrekoak gertatzen direla egiaztatzen duen bidezko administrazio espedientearen tramitatu ondoren, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren aurretiazko berriazko onespena izan beharko du.

3. Eskuordetzak honako hauek beharko ditu mugatu: xede dituen eskumenak edo eginkizunak, eskuordetu diren ahalmen zehatzak, horiek beteazteko baldintza zehatzak eta Foru Komunitateko Administrazioak beretzat gorde dituen kontrol neurriak .

4. Ganberak eskuordetzaren bidez hartuko dituen erabakiek berriaz agertuko dute inguruabar hori eta Nafarroako Gobernuak emandako erabakitzat joko dira.

5. Nafarroako Gobernuak edozein unetan ezeztatu dezake eskuordetza hori.

6. Eskuordetza, baita horren ezeztapena ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

5. artikulua.- Kudeaketa agintzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere eskumeneko jarduera materialak, teknikoak edo zerbitzuen alorrekoak Nafarroako Merka-

taritza eta Industria Ganbera Ofizialari agin diezazkioke, baldin eta eraginkortasun edo bitarteko tekniko egokirik ezak horrela egitea aholkatzen badute.

2. Kudeaketa agintzeak ez du esan nahi esku-menaren edo horien burutzapenaren funtsezko elementuen titulartasuna lagatzen denik, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizuna da agindu horren xedea den jarduera material zehatzari eusteko edo osatzeko egintza edo ebazpen juridiko guztiak ematea.

3. Kudeaketa agintzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren arteko hitzarmenaren bidez gauzatu da, eta hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da; honako hauek agertuko dira hitzarmen horretan: agindu den edo diren jarduerak, horren indarraldia, agindu den kudeaketa horren izaera eta hedapena eta, hala denean, bi alderdiek gaitu dituzten bitarteko ekonomikoak.

6. artikulua.- Araubide juridikoa.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak honako foru lege honetan ezarri dena izango du arau; beti ere, merkataritza, industria eta nabigazio ganbera ofizialei eta kanpo merkataritzari dagokien alorrean Estatu mailan dagoen legedia eta, hala denean, honako foru lege hau garatuz emanen den foru arautegia gorabehera. Ordezko izaera bezala, aplikagarria izanen da administrazio publikoen egitura eta funtzionamenduari buruzko legedia, baldin eta bere izaera eta helburuekin bateragarria bada.

2. Kontratazioari eta ondare araubideari dago kienean, baita izaera publiko eta administratiborik ez duten betebeharrei dagokienean, zuzenbide pribatua izango da araua.

7. artikulua.- Esportazioa Sustatzeko Plana.

1.- Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak parte hartuko du Esportazioak Sustatzeko Ganbera Plana prestatzen eta burutzen, beti ere Estatuan arlo horietarako ezarri den indarreko legediaren arabera.

2. Eskuhartze hori aurretik koordinatu beharko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plangintza eta proiektuekin.

II. TITULUA

Osaera, antolakuntza eta funtzionamendua

I. KAPITULUA

Osaera

8. artikulua.- Hautesleak.

1. Ganberako Osoko Bilkuraren hautesle dira merkataritza, industria edo nabigazioaren alorreko jarduerak egiten dituzten pertsonak, hala naturalak nola juridikoak, nazio mailakoak zen atzerrikoak, baldin eta Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean establezimenduak, ordezkariak edo agentziak badituzte.

2. Bereziki, aurreko ataleko jarduerak dira, hala norberaren kontura nola inork aginduta edo agentzia baten bidez egin arren, ondoko hauek: ateratzearen alorrekoak, industriakoak, eraikintza-koak, merkataritzakoak, zerbitzuetakoak, bereziki ostalaritza, garraio, komunikazio, aurrezte, finantza, aseguru, alogera, ikuskizun, joko eta jarduera artistikoak, baita merkataritzako kudeaketa, artekaritza, ordezkariak edo zainpeketak, era guztietako tasazioak eta likidazioak eta higiezin agentziak, jabetza industrialak, balore negoziagarriak, aseguruak eta kredituzkoak.

Dena dela, salbuetsita egonen dira lehen alorreko nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako jarduerak eta pertsona fisikoak diren aseguru-agente eta artekariaren zerbitzuak; halaber, salbu daude beren beregi aurreko lerroaldean agertu ez diren lanbide liberalak.

Aurreko lerroaldeak xedatuaren ondorioetarako bakarrik, hauxe ere ulertuko da: Nafarroako Kooperatibei buruzko uztailaren 2ko 12/1996 Foru Legeko 62. artikulua esandako lehen mailako nekazaritza-kooperatibek, lehen alorreko nekazaritza-jarduerak burutzen dituztela.

3. Pertsona natural edo juridiko batek merkataritza, industria edo nabigazioaren alorreko jarduerak egiten duela ulertuko da baldin eta horregatik Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari edo Lizentzia Fiskalari lotuta badago.

II. KAPITULUA Antolakuntza

9. artikulua.- Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren gobernu organoak.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren gobernu organoak Osoko Bilkura, Batzorde Betearazlea eta Ganberaburua dira.

Lehen sekzioa Osoko Bilkura

10. artikulua.- Osaera eta hautespena.

1. Osoko Bilkura Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren gobernu eta ordezkarietarako goreneko organoa da, eta hogeita hamasei kide izanen ditu; kide horien agintean

iraupena lau urte izanen da eta hautapena honela eginen da:

a) Hogeita hamabi kide aterako dira, hautespen aske, berdin, zuzen eta ezkutukoaren bidez, hauteskunde-errolan dauden Ganberako Osoko Bilkuraren hautesle guztien artean, taldeka eta mailaka sailkatuak, Nafarroako Foru Komunitatean ordezkariak dauden alor ezberdinen garrantzi ekonomikoa erlatiboaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ezarri duen eran.

b) Aurreko letran adierazi diren Osoko Bilkura-kideek hautatuko dituzten beste lau kide -kasu honetan Foru Komunitateko jardun ekonomikoan ospe handia duten pertsonen artean-, sektoreartean eta lurraldean ordezkariak handiena duten enpresario elkarteak proposatuta. Ondore horretarako, aipatu diren elkarte horiek bete behar den kide kopurua heren batean gaudituko duen hautagaien zerrenda proposatu beharko dute.

2. Osoko Bilkurako kide izateak izaera bakarra du eta ezin da eskuordetu.

3. Osoko Bilkurako kideek haren bilkuretara joateko eskubidea eta betebeharra dute, eta hizpidea eta botua izanen dute.

11. artikulua.- Eskurantzak.

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren goreneko organoa den neurrian, Osoko Bilkurari ondoko eskurantza hauek dagozkie:

a) Ganberaburua hautatzea eta kargutik kentzea.

b) Ganberaren gainerako gobernu organoak kontrolatzea eta fiskalizatzea.

c) Barne Araubideko Erregelamendua eta horren aldarazpenak behin-behinean onestea, eta araudi hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari igortzea behin betikoz onetsi dezan.

d) Administrazio publikoekin eta gainerako entitateekin lankidetzan eta elkarkidetzan aritzeko hitzarmenak onestea.

e) Ganberak beste elkarte, fundazio eta sozietate zibil edo merkataritzakoak sortzea edo horietan eskuhartzeari buruzko erabakiak hartzea, baita horiek ezabatze edo eskuhartze hori bukatze erabakiak ere.

f) Ganberako plantila organikoa onestea.

g) Ganberaren Aurrekontuaren eta urteko Kontuen hasierako onespina eta horiek Foru Komunitateko Administrazioari aurkeztea, horrek behin betiko onetsi ditzan.

h) Batzorde Betearazlean sartuko diren Osoko Bilkurako kideak izendatzea eta kargutik kentzea.

i) Idazkari Nagusiaren lanpostua betetzeko deialdiaren oinarrien hasierako onespena.

j) Idazkari Nagusia izendatzea eta kargutik kentzea.

k) Ganberaren zerbitzuko goi zuzendaritzako langileak izendatzea eta kargutik kentzea.

l) Administrazio publikoei igorri behar zaizkien txostenak onestea.

m) Edozein jurisdikziotan ekintzak burutzeko eta errekursoak jartzeko erabakiak hartzea.

n) Ondarea besterenganatzea, bere eskumeneko alorretan gastuak erabakitzea eta kreditu eragiketak hitzartzea.

ñ) Ganberaren urteko jarduketa eta kudeaketa planak onestea.

o) Aholkuak emateko eta txostenak egiteko batzordeak eratzea.

p) Ganberak beste erakunde batzuetan izanen dituen ordezkariak izendatzea.

q) Berariaz legeek eratzikiko dizkien gainerako eskurantzak guztiak.

12. artikulua.- Eskurantzak eskuordetzea.

1. Ganberaren Osoko Bilkurak Ganberaburuaren edo Batzorde Betearazlearen eskuetan utz ditzake bere eskurantzak, salbu eta 12. artikuluko a), b), c), f), g), h), i), eta j) idazatietan adierazi direnak.

2. Eskuordetza egiteko Osoko Bilkuraren erabakiak eskuordetu diren eskumenak edo eginkizunak mugatu, zein erakunderi eskuordetu zaion adieraziko du, eta hurrengoak zehaztuko ditu: eskuordetu diren ahalmenak, horiek burutzeko ezarri diren baldintza zehatzak eta, hala denean, eskuordetzaren epea eta Osoko Bilkurak beretzat gorde dituen kontrol neurriak.

3. Ganberaburuak edo Batzorde Betearazleak eskuordetzaren bidez hartuko dituzten erabakietan berariaz adieraziko da inguruabar hori eta Osoko Bilkurak hartukotzat joko dira erabakiak.

4. Eskuordetzari buruzko erabakia eta horren ezeztapenari dagokiona hartu eta biharamunean jarriko dira indarrean, nahitaez Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearen kaltetan gabe.

5. Osoko Bilkurak eskuordetza edozein unetan deusez dezake.

6. Aurreko ataletan ezarri denarekin bat, Osoko Bilkurak finantza kudeaketaren alorrean eginen dituen eskuordetzak eman egiten ahal dira, nola-eta Aurrekontuaren betearazpenerako oinarrien bidez; eskuordetza berez desagertuko da hurrengo Aurrekontua onesten den unean.

7. Adierazi dena gorabehera, Osoko Bilkurak emanen dituen eskuordetzek ezin dute agintaldia gainditu eta berez indargabetuko dira Ganberaren Osoko Bilkura berritzen den unean.

Bigarren sekzioa Batzorde Betearazlea

13. artikulua.- Osaera.

1. Honako hauek osatuko dute Batzorde Betearazlea: Ganberaburuak, gehienez bi Ganberaburuordek, Diruzainak eta gehienez Osoko Bilkurako sei kidek. Osoko Bilkurak hautatuko ditu, Barne Araubideari buruzko Erregelamenduan ezarri den eran.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ordezkari bat izendatuko du; ordezkari hori Batzorde Betearazlearen bileretara deituko dute eta hizpidea izanen du, baina ez botoa.

14. artikulua.- Eskurantzak.

Batzorde Betearazlea Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren kudeaketa-, administrazio- eta proposamen-organo iraunkorra da eta ondoko eskurantzak hauek dagozkie:

a) Ganberaren helburuekin zerikusia duten txostenak eta azterlanak prestatzea edo egiteko agintzea.

b) Ganberaren jarduera eta kudeaketa plan urterokoak proposatzea Osoko Bilkurari, eta onetsita daudenak egitea eta zuzentzea, Osoko Bilkura horri bete direla jakinaraziz.

c) Aurrekontuen proiektuak lantzea eta Osoko Bilkurari aurkeztea, hark onets ditzan.

d) Urteko Kontuak egitea eta Osoko Bilkurari aurkeztea, hark onets ditzan.

e) Langileen kontratazioak agintzea, goi zuzendaritzakoena izan ezik.

f) Ganberaren baliabide iraunkorraren bilketa eta likidazioari buruzko ebazpenak onestea.

g) Hautesle-errola onestea eta horri aurkeztu zaizkion inpugnazioak ebaztea.

h) Premiazko kasuak daudenean, Osoko Bilkuraren eskumeneko diren gaiari buruzko erabakiak hartzea. Halakorik gertatuz gero, Osoko Bilkurak

eginen duen hurrengo bilkuran eman beharko zaio horren berri, aipatu erabakiak berrets ditzan.

i) Ganberako zerbitzuen ohiko jarduna begiratzeari.

j) Osoko Bilkurak eskuordetuko edo aginduko dizkion eskumenak burutzeari.

k) Beste organo bati berariaz eratziki ez zaizkion eskumenak burutzeari.

Hirugarren sekzioa Ganberaburua

15. artikulua.- Hautatzea eta kargutik kentzea.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren Burua Osoko Bilkurak hautatuko du bere kideen artean; hautespena Barne Araubideari buruzko Erregelamenduan ezarri den eran egingen da.

Hautatua izateko, hautagaiak Osoko Bilkurako kideen gehiengo osoaren aldeko botoa beharko du eskuratu. Baldin eta ez bada gehiengo hori eskuratu, bigarren botazioari ekingo zaio eta botoen gehiengo eskuratuko duen kidea izanen da hautatua.

2. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren Buruak ondoko hauek gertatzen direnean utziko du kargua:

a) Osoko Bilkura berritzeko hauteskundeak egitea.

b) Osoko Bilkuraren gehiengo osoak zentsura mozioa onestea. Delako mozio hori gutxienez Osoko Bilkurako kideen bostenak proposatu beharko du, horretarako egingen den bileran, eta nahitaez Ganberaren burutzarako beste hautagai bat sartu beharko da proposamenean.

c) Dimisioa.

d) Kargurako ezgaikuntza ekarri duen epai irmoa.

e) Heriotza.

Aurreko kasuetariko bat gertatzen bada, Ganberaburuaren ordezkari ganberaburuordeak jarriko dira, hurrenkeraren arabera, harik eta beste Ganberaburu bat hautatu arte, Barne Araubideari buruzko Erregelamenduan ezarri den eran hautatu ere.

16. artikulua.- Eskurantzak.

1. Ganberaren gobernu-organoa da Ganberaburua eta honako hauek ditu bere: Ganberaren ordezkari eta Ganberaren organo kolegiatu guztien buruzagitza. Osoko Bilkuraren eta Batzorde

de Betearazlearen erabakiak betetzeaz arduratuko da. Eskurantzak hauek dagozkie:

a) Osoko Bilkuraren, Batzorde Betearazlearen eta Ganberaren gainerako organoen bileretarako deiak egitea, bileren buru izatea eta bilerak zuzentzea, eta gertatzen ahal diren berdinketak bere botoaren bidez ebaztea.

b) Ganberaren organo kolegiatuen erabakiak betearaztea.

c) Gastuak erabakitzea, bere eskumenen mugen barruan, eta ordainketa guztiak agintzea, horien berri Osoko Bilkurari emanaz.

d) Legeak eta Barne Araubideari buruzko Erregelamenduak eratzikitzen dizkieten gainerako eginkizunak, eta baita Ganberaren Osoko Bilkurak eskuordetuko dizkionak ere.

17. artikulua.- Eskurantzak eskuordetzea.

1. Ganberaburuak ganberaburuordeen eskutik utzi ditzake bere eskurantzak, salbu eta Osoko Bilkurako eta Batzorde Betearazleko buru izateari dagokiona, eta hori Foru Lege honen 15.2 eta 18.2. artikuluetan ezarri diren ordezkari kasuen kaltetan gabe.

Formari dagokionean, eskuordetza horien araubidea 12. artikuluko 2, 3 eta 4. ataletan ezarri denari egokituko zaio, eta epeari dagokionean eskuordetza Ganberaburuaren agintealdia iraungitzen denean bukatuko da.

2. Halaber, Ganberaburuak edozein unetan eskuordetza bereziak era ditzake Osoko Bilkuraren edozein kiderentzat, gai jakinak zuzendu eta kudeatu ditzan; beti ere, Barne Araubideari buruzko Erregelamenduan ezarri denarekin bat.

Laugarren sekzioa Ganberaburuordeak

18. artikulua.- Izendatzea, kargutik kentzea eta eginkizunak.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren Osoko Bilkurak hautatuko ditu ganberaburuordeak, bere kideen artean, baita kargutik kendu ere, Barne Araubideari buruzko Erregelamenduan ezarri denarekin bat.

2. Ganberaburuordeak, ordenaren arabera, Ganberaburua ordeztuko dute, baldin eta ez badago edo gaixorik badago.

3. Ganberaburuordeak, halaber, Ganberaburuak eskuordetuko dizkien eginkizunak burutuko dituzte, kasu honetan Foru Legearen 17.1. artikuluan ezarri dena betez.

Bosgarren sekzioa Diruzaina

19. artikulua.- Izendatzea eta eginkizunak.

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren Osoko Bilkurak hautatuko du, bere kideen artetik, Diruzaina. Diruzaina kargutik kentzeko erabakia ere Osoko Bilkurari dagokio. Barne Araubideari buruzko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat egingo dira izendapena eta kargutik kentzea. Diruzainari dagozkio erakundearen ekonomia, finantza, aurrekontu eta kontabilitatearen alorreko zerbitzuen goi zuzendaritza, baita erakundearen fondoak eta baloreak zaintzea ere. Halaber, Barne Araubideari buruzko Erregelamenduan eratziki zaizkion gainerako eskurantzak burutuko ditu.

Seigarren sekzioa Langileak

21. artikulua.- Araubide juridikoa.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren zerbitzuko langile guztiak Lan Zuzenbidearen menpe egonen dira.

2. Barne Araubideari buruzko Erregelamenduak langileak kontratatzeko prozedura ezarriko du; lanpostuak betetzeko garaiak, merezimenduen eta gaitasunaren printzipioak bermatuko dira, orobat lanpostuetarako deialdi publikoarena.

21. artikulua.- Idazkari Nagusia.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak Idazkari Nagusi bat izanen du, iraunkorra eta ordaindua; aholkuak eman ahal izanen ditu baina ez du botorik izanen. Zuzenbide lizentziatu titularen jabe izanen da eta haren izendapena, lanpostu hutsa betetzeko deialdi publikoa egin ondorengo, Korporazioaren Osoko Bilkurari dagokio. Izendapen horretarako, kideen erdiak gehi beste batek hartutako erabakia behar da.

Deialdiaren oinarriak Ganberaren Osoko Bilkurak onetsiko ditu, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

2. Idazkari Nagusiaren eginkizunak ondoko hauek dira: Ganberaren gobernu organoen erabakiak legezkoak direla zaintzea; organo horien egintzen eta hartu dituzten erabakien fede publikoa ematea, eta, oro har, Barne Araubideari buruzko Erregelamenduan berariaz eman zaizkion gainerako eskurantza guztiak.

3. Barne Araubideari buruzko Erregelamenduak zehaztuko ditu Idazkari Nagusia ordeztzeko modua eta kasuak, aldi baterako kanpoaldia,

bakantea, gaixotasuna edo aldi baterako beste edozein ezintasun gertatuz gero.

4. Ganberaren Osoko Bilkurari dagokio Idazkari Nagusia kargutik kentzea. Horretarako, kideen erdiak gehi beste batek hartutako erabaki arrazoi-tua behar da.

24. artikulua.- Goi Zuzendaritzako langileak eta izendapen askeko karguak.

Barne Araubideari buruzko Erregelamenduak, lanari buruzko arautegian ezarri dena betez, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren zerbitzura egonen diren Goi Zuzendaritzako langileei eta izendapen askeko beste karguei dagozkien gai guztiak zehaztuko ditu.

25. artikulua.- Plantila organikoa.

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren Osoko Bilkurak urtero onetsiko du plantila organikoa; plantila horretan, era egokian sailkatuta, lanpostu guztiak eta horien izena, eginkizunak eta kategoria agertuko dira.

III. KAPITULUA Funtzionamendua

24. artikulua.- Bilera motak.

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren organo kolegiatuek ohiko bilerak izanen dituzte, noizero egingo diren aurretik erabakita. Aparteko bilerak ere egin daitezke, eta presazkoak izaten ahal dira.

25. artikulua.- Ohiko bilerak.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren Osoko Bilkurak, gutxienez, urtero sei ohiko bilera egingen ditu; bilera baten eta hurrengoaren artean gehienez egutegiko lauogeita hamar eguneko tarte egoten ahal da.

2. Batzorde Betearazleak, gutxienez, urtero hamabi ohiko bilera egingen ditu; bilera baten eta hurrengoaren artean gehienez egutegiko hirurogeita hamabost eguneko tarte egoten ahal da.

3. Barne Araubideari buruzko Erregelamenduan ohiko bileren aldizkotasuna ezar daiteke, beti ere aurreko idazatietan ezarri diren gutxienezkoak betez.

26. artikulua.- Aparteko bilerak.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren Buruak, bere kabuz, Osoko Bilkuraren edo Batzorde Betearazlearen aparteko bilerarako deia egin dezake, baldin eta gertatzen ari diren inguruabarrek horretarako bidea ematen badiote.

2. Gutxienez kideen legezko kopuruaren bostena hala eskatzen badio, Ganberaburuak Osoko Bilkuraren eta Batzorde Betearazlearen aparteko bilerarako deia eginen du, hilabeteko epean, gehienez ere, Osoko Bilkuraren kasuan, eta hamabost egun naturaleko epean, gehienez ere, Batzorde Betearazlearenean.

Eskabide horretan eztabaidatuko diren gaien zerrenda adieraziko da.

3. Aparteko bilerak presazkoak izanen dira Ganberaburuaren deia eta bileraren artean berrogeita zortzi ordu baino gutxiago badago. Bilera baliogarria izan dadin nahitaezkoa izanen da kideei jakinaraztea eta botazioaren bidez horren presazkotasuna berrestea.

27. artikulua.- Deialdia.

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren organo kolegiatuen bileretarako deia Ganberaburuak eginen du. Deialdian, aztergaien zerrenda eta aztertuko diren gaien buruzko beharrezko informazioa agertuko da, eta gutxienez berrogeita zortzi ordu aurretik eginen da. Epe hori ezin da aplikatu aparteko eta presazko bileren deialdietan.

28. artikulua.- Bertaratze-quoruma. Erabakiak hartzeko quoruma.

1. Ganberaren Osoko Bilkuraren bilerak baliozkoak izan daitezzen, lehen deialdian, gutxienez kide guztien bi heren egon beharko du eta erabakiak gehiengo soilaren bidez hartuko dira.

2. Deialdia egin eta aurreko atalean seinatutako kideen kopurua lortu ez bada, Osoko Bilkura bigarren deialdian eratu daiteke, bilkura egiteko ordua baino ordu erdi beranduago; beti ere, kideen erdia eta bat gehiago bertaratu badira. Kasu horretan, hartutako erabakiak baliozkoak izan daitezzen, bertaratutakoen bi herenek aldeko botoa eman beharko du.

3. Ganberako gainerako organo kolegiatuen eraketa baliogarria izan dadin, bilerak eta eztabaidak egitearen eta erabakiak hartzearen ondoretarako, nahitaezkoa izanen da lehenengo deialdian organo hori osatzen duten kideen legezko kopuruaren erdia eta bat gehiago bertaratzea. Ordu erdi beranduago eginen den bigarren deialdian, organoa era baliogarrin eratu da, bertaratu diren kopurua gorabehera, baldin eta bertaratu diren artean Ganberaburu edo legez eskuordetuko duena eta, gutxienez, organoko hiru kide badaude, Idazkariarekin batera. Aipatu organoen erabakiak botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira, eta gehiengo soil eskuratu dela

ulertuko da aldeko botoak aurkako botoak baino gehiago badira.

4. Ganberako organo kolegiatuen hainbanakok Ganberaburuak edo legez eskuordetuko duenak ebartziko ditu.

29. artikulua.- Aktak.

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren organo kolegiatuek egiten dituzten bileren kktak prestatuko ditu Idazkariak; akta horietan, eztabaidatu diren gaiak eta hartu diren erabakiak erasoko dira eta Barne Araubideari buruzko Erregelamenduak ezarri dituen beharrikun eta formalitateak beteko dira.

IV. KAPITULUA

Barne Araubideari buruzko Erregelamendua

30. artikulua.- Onestea eta aldatzea.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak Barne Araubideari buruzko Erregelamendua prestatuko du. Ganberaren Osoko Bilkurak onetsi ondoren, Nafarroako Gobernuari igorriko zaio, behin betikoz onetsi dezan, eta gero Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Barne Araubideari buruzko Erregelamendua aldatzeko tramiteak, onesteko berberak izanen dira; dena dela, kasu horretan Nafarroako Gobernuak ahalmenak ditu Ganberaren Osoko Bilkurari bidezko deritzon aldaketak proposatzeko.

31. artikulua.- Edukia.

Barne Araubideari buruzko Erregelamenduak erabat beteko du Foru Lege honetan eta martxoaren 22ko 3/1993 Legean ezarri dena, eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren eskumeneko edozein alor arau dezake.

III. TITULUA

Hauteskunde araubidea

32. artikulua.- Hautesle-errola.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren hautesle-errolan hautesle guztiak azalduko dira, nola-eta eskuordetuta dauden arlo guztien garrantzi ekonomikoaren arabera, talde eta kategorietan sailkatuta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak finkatuko duen eran.

2. Hautesle-errola urtero eratu eta berrikusiko da, eta lan hori Batzorde Betearazleak eginen du, erreferentziazat urte bakoitzeko urtarrilaren lehen harturik; eragiketa horietan gertatu diren altak eta bajak azalduko dira, eta agiri horren aldaki

eguneratua Foru Komunitateko Administrazioari igorriko zaio.

33. artikulua.- Hautespen aktiboaren eskubi-dea.

Hautesle izateko, hala norberaren izenean nola pertsona juridikoen eskuordetzan, hautes-kundeei buruzko legedia orokorrean ezarri diren adina eta gaitasuna behar dira.

34. artikulua.- Hautespen pasiboaren eskubi-dea.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren gobernu organoetarako hautagai izateko, hautesle izateko behar diren beharkizunak ezezik, ondoko hauek eduki behar dira:

a) Espainiar naziotasuna edo Europako Bata-suneko kidea den beste Estatu bateko naziotasuna izatea.

b) Arestian aipatu diren lurralde horietan enpresa jarduerak gutxienez bi urtez burutu izana.

c) Ganberaren baliabide iraunkorraren ordainketan zorpekoan ez egotea.

2. Osoko Bilkurarako hautagai izateko nahitaezkoa izanen da, halaber, kasuan kasuko talde eta kategoriako hautesle-errolan azaltzea.

3. Beste naziotasun bat duten pertsonak, elkarrekikotasun abiaburuarekin bat, hautagaiak izaten ahal dira baldin eta aurreko idazatietan ezarri diren beharkizunak betetzen badituzte.

35. artikulua.- Hauteskunde prozedura.

1. Nafarroako Gobernuak, legedia orokorrean ezarri denarekin bat hauteskunde prozesua irekitzat jo ondoren, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialeko hauteskundeen deialdia eginen du.

2. Hauteskunde Batzarraren osaera eta eginkizunak Barne Araubideari buruzko Erregelamenduak araupetuko ditu eta beti bermatuko da erakunde horren jarduketa independentea eta eraginkorra.

IV. TITULUA **Araubide ekonomikoa eta** **aurrekontuen araubidea**

36. artikulua.- Finantzaketa.

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak, bere jarduerak finantzatzeko, ondoko sarrera hauek izanen ditu:

a) Foru lege honen V. tituluan araupetu den ganberaren baliabide iraunkorrean integratu diren kontzeptuengatik etekinak.

b) Beste Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera batzuek egiten dituzten ekarpenak.

c) Ematen dituen zerbitzuengatik eskuratzen dituen ohiko eta aparteko sarrerak eta, orokorrean, jarduerak egiteagatik eskuratzen dituenak.

d) Bere ondarearen ekoizkinak, errentak eta gehikuntzak.

e) Hautesleek egiten dituzten borondatezko ekarpenak.

f) Jaso ditzakeen dirulaguntzak, legatuak edo dohaintzak.

g) Eginen dituen kreditu eragiketen emaitzak direnak.

h) Legez, hitzarmenez edo antolamendu juridikoan ezarri denarekin bat datozen gainerako prozeduren bidez eratziki dakizkiokeen gainerakoak.

37. artikulua.- Ganberaren baliabide iraunkorraren pentzutan finantzatuko den gehieneko portzentaia.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak ganberaren baliabide iraunkorraren bidez eskuratzen dituen sarrerek ezin dituzte Korporazioaren sarrera guztien 100eko 60a gainditu.

Aurreko lerroaldean ezarri denaren ondoretarako, ez dira Ganberaren sarreraren barruan zenbatuko ondoko hauek: zorpetzetik datozenak; ganberaren baliabide iraunkorrekoak izanik, manuz helburu zehatz bati lotuta dauden portzentaia, adibidez, Esportazioak Sustatzeko Ganbera Planari edota lanbide eta enpresa prestakuntzari.

2. Ganberaren baliabide iraunkorraren sarre- rek, aurreko idazatiko bigarren lerroaldean adierazi direnak salbuetsita, arestian adierazi den 100eko 60ko muga gainditzen baldin badute, gaidikin hori erreserbako fondo bat eratzeko erabiliko da.

Erreserba horiek, hurrenez hurreneko ekitaldietan, ganberaren baliabide iraunkorraren sarre- rak osatzeko baino ezin dira erabili, eta hori ere, harik eta beste jatorri batzuetako sarrerak kontuan hartuta, gehienezko portzentaia iritsi arte.

Erreserba, baldin eta aurreikusteko modukoa bada, aurrekontuan sartuko da eta aurrekontua likidatzeko unean eratuko; hurrengo ekitaldietako baliabideen pentzutan konpentsatuko da, kasua bada.

Erreserba eratu den ekitaldia bukatu denetik bost urte igaro baldin badira, eta ezinezkoa izan bada erreserba edo horren etekinak arestian adierazi den eran aplikatzea, honako Foru Lege honen 56. artikulua 2. atalean ezarri diren eginkizunetariko bat finantzatzeko erabiliko dira edo, bestela, ganberaren baliabide iraunkorraren kuota ingresatu dituztenei itzuliko zaizkie, egin dituzten ekarpenen portzentaien arabera.

3. Esportazioen Planari atxiki zaion ganberaren baliabide iraunkorraren zatirako benetan bildutakoa, plan hori finantzatzeko egin diren gastu eta inbertsioak baino gehiago denean, Ganberak ondare erreserba eratuko du. Erreserba hori epe motzeko eskuragarrian gauzatuko da, eta ezin izango da hurrengo ekitaldietan erabili, arestian aipatu den Planean sartu diren jarduerak finantzatzeko baino.

38. artikulua.- Aurrekontuak.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren finantza jardura aurrekontu eta kontabilitatearen araubideari lotuta dago eta, beraz, horren aurrekontu eta kontabilitateko egitura Nafarroako Ogasun Publikoa araupetu duen arautegian bildu diren oinarrien itzalpean dago.

2. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak, urtearekin bat etorriko den aurrekontu arrunta prestatuko du, urtero; aurrekontu horretan sartuko dira likidatzeko aurreikusi diren dirusarrera guztiak, eta aldi horretan onets daitezkeen betebeharrak, eta beti eutsiko zaio aurrekontuaren orekari.

3. Gastuen egoerako kredituak zertarako baimendu diren aurrekontuan, horretarako baino ezingo dira erabili.

4. Ezinezkoa da dagokion gastuen egoeran baimendu diren kredituen munta gainditzen duena baino gehiagoko gastu konpromisorik.

Aurreko ataletan ezarri dena gorabehera, kredituen gehikuntzak eta transferentziak egiten ahal dira, baita Aurrekontuaren beste edozein aldaketa ere, baldin eta horien arrazoiak era egokian bidezkotzen badira, eta Aurrekontua onesteko aurreikusi den prozedura betetzen bada.

5. Salbuespenetan, eta aparteko inbertsioak egiteko baino ez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aparteko aurrekontua egitea baimen dezake.

39. artikulua.- Aurrekontuak prestatzea eta onestea.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak bere aurrekontuak prestatuko ditu;

aurrekontu horiek kapitulu, artikulua, kontzeptu eta kontusailka taxutuko dira, Barne Araubideari buruzko Erregelamenduak ezarri duen egitura eta era betez. Ganberak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren onespeneraren menpe utziko ditu, gero.

Aurrekontuaren proiektua prestatzea Batzorde Betearazleari dagokio; organo horrek Ganberaren Osoko Bilkurari aurkeztuko dio behin-behineko onespenerako.

2. Aurrekontua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aurkeztuko zaio, urte bakoitzeko azaroaren 1a baino lehen, behin betiko onetsi dezan. Aurrekontuarekin batera, ondoko agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Aurrekontua azaltzen duen oroit-idazkia.

b) Jarduteko egitaraua eta aurreikusi diren inbertsioak.

c) Indarreko aurrekontuen betetzearen egoera.

d) Finantzaketa egitaraua eta jarduketena.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organo eskumendunak osorik onetsi dezake aurrekontua; edo onespenera baldintzatu egin dezake, eta Ganberari aldarazpen txiki batzuk sartzeko agindu; edo, halaber, arrazoiak eman eta ez onetsi.

4. Aurrekontuak behin betiko onetsitzat joko dira baldin eta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aurkeztu eta hiru hilabete igaro ondoren, erakunde horrek era formalean inolako ingirarik adierazi ez badu.

5. Baldin eta aurrekontua ez badago behin betiko onetsita ekitaldi ekonomikoa hasi den unean, aurreko ekitaldiko aurrekontu bateratua berez luzatu dela ulertuko da.

40. artikulua.- Aurrekontuen likidazioa.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak, Korporazioaren urteko kontuak prestatu eta onetsiko ditu. Kontu horietan ondoko dokumentuak agertuko dira:

a) Burutu diren jardueren alderdirik garrantzitsuenak azaltzeko oroit-idazkia.

b) Burutzen ari diren ohiko eta aparteko aurrekontuen urteko likidazioa.

c) Korporazioaren ondare eta finantza egoera frogatzen duen urteko balantzea.

d) Balantzeari buruzko iruzkinak.

e) Baldin eta aurrekontuko kontusail baten pentzutuan egin diren gastuak hasierako kreditua-

ren 100eko 80a baino gutxiago badira, aurrekontuko sail horren betetze ezaren zioei buruzko txosten arrazoitua aurkeztuko da, betetzearen egoerarekin batera.

2. Batzorde Betearazleak Urteko Kontuak prestatu beharko ditu, eta lan hori egiteko gehie- nez ekitaldia itxi eta hiru hileko epea du. Kontu horiek -auditoretza-txostena eginen zaie- Ganberaren Osoko Bilkuran aurkeztuko dira hurrengo urtearen maiatzaren 31 aurretik, organo horrek bidezko erabakia har dezan.

3. Urteko Kontuak, auditorearen irizpena eta Osoko Bilkuraren erabakiaren edukia azaltzen duen ziurtagiriarekin batera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari igorriko zaizkio behin betiko onets ditzan.

41. artikulua.- Kanpo kontrola.

1. Kontuen Ganbarari dagokio, bere arautegian ezarri denarekin bat, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak ganberaren baliabide iraunkorraren etekinen ondorioz jaso dituen munten fiskalizazioa egitea.

2. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren aurrekontuko sarrera eta gastuen likidazioak, Esportazioak Sustatzeko Ganbera Planari dagokienean, Kontuen Epaitegiak fiskalizatuko ditu.

42. artikulua.- Erantzukizuna.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren ondasunak eta eskubideak kudeatzen dituzten pertsonak, Ganbarari eragin diezaieketen gaitz-kalteak ordaindu beharko dituzte, baldin eta dolo, erru edo utzikeria larrien kasuak eta indarreko arautegiaren urratzeak diren ekintza edo ez-egiteengatik ondorio badira; beti ere, egotz dakizkiekeen zigor erantzukizuna edo beste edozein gorabehera.

V. TITULUA

Ganberaren baliabide iraunkorra

I. KAPITULUA

Definizioa eta kudeaketa

43. artikulua.- Ganberaren baliabide iraunkorra.

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren baliabide iraunkorrean jarraian adieraziko diren portzentaiazko ordainarazpenak daude; horien oinarria ondoko zerga hauen kuotak edo etekinak izanen dira:

a) Sozietateen gaineko Zerga:

Zergaren kuotaren 100eko 0,75a. Kuota hori ateratzeko, zergaren kuota osoari hauexek kenduko zaizkio: zergapetze bikoitzarengatik kenkariak eta hobariei buruzko garaian garaiko arauak aurreikusitako hobariak. Hori guztia, kuota milioi 1 eta 10 milioi pezetako tartean denean. Arestian aipatu den muga hori gainditzen duten Sozietateen gaineko Zergaren kuota atalentsat, kuotaren tarte bakoitzari aplikatuko zaion tasa jarraian adieraziko dena izanen da:

Tartek	Tasa
10.000.001etik 100.000.000ra.....	0,70
100.000.001etik 500.000.000ra.....	0,65
500.000.001etik 1.000.000.000ra.....	0,55
1.000.000.001etik 2.000.000.000ra.....	0,45
2.000.000.001etik 3.000.000.000ra.....	0,30
3.000.000.001etik 4.000.000.000ra.....	0,15
4.000.000.000tik gora.....	0,01

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga:

Zergaren arauak aplikatuzetik heldu diren etekin garbien 1.000eko 1,5a, baldin eta honako Foru Lege honen 8. artikuluan aipatu diren enpresa eta lanbide jardueretakoak badira eta, hala denean, zerga gardentasun araubideko entitateei dagozkien oinarriena, eta eratzikipen araubidean dauden entitateei dagozkien errentena.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga edo Lizentzia Fiskala:

Zerga horren tributu kuoten 100eko 2, kontuan hartu gabe zergapeturiko jarduerak burutzen diren lokaletako azalerak osatzen duen tributu-elementua, ez eta Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 154. artikulua arauturiko indizeen eskalari dago-kiona ere. Ordainarazpen hori 1.100 pezeta izanen da gutxienez eta munta hori aldiro eguneratuko da foru dekretuaren bidez, baina Kontsumoko Prezioen Indizea gainditu gabe.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko legeek artikulua honetan aurreikusi ganbera-alikuota igo ahal izanen dute, dagokion oinarriaren ehuneko 9raino, gehienez ere.

44. artikulua.- Baliabidearen izaera eta araubide juridikoa.

Ganberaren baliabide iraunkorra ordainarazpen parafiskala da eta zer tributu dituen xede, haien araubide juridikoari erabat atxikitzen zaio, kudeaketa, bilketa eta erantzukizunei dagozkienean.

45. artikulua.- Baliabidearen subjektu pasiboak.

1. Ganberaren baliabide iraunkorraren subjektu pasiboak izanen dira, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialeko Osoko Bilkuraren hautesleak izanik, ordainarazpenen xede diren zerga horien subjektu pasiboak diren pertsona edo entitateak; gertatzen ahal diren kasuak hauek dira:

a) 43. artikuluko a) eta b) letretan ezarri diren ordainarazpenen kasuan, baldin eta Hitzarmen Ekonomikoak agindu duenaren arabera, subjektu pasiboak egoitza fiskala Nafarroan edukitzeagatik bidezko Zergaren ordainarazpena Nafarroari badagokio.

Ez egoiliarren establezimendu iraunkorrak, baldin eta dagokion zergaren ordainarazpena Nafarroari badagokio.

b) 43. artikuluko c) letran ezarri den ordainarazpenaren kasuan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga edo Lizentzia Fiskalaren kuotak Nafarroako toki entitateei ordaindu behar zaizkienean.

46. artikulua.- Zergaldia eta sortzapena.

Ganberaren baliabide iraunkorra osatzen duten ordainarazpenen zergaldia eta sortzapena bat etorriko dira dagozkien zergenekin.

47. artikulua.- Likidazioa eta sarrera.

1. Subjektu pasiboek Nafarroako Ogasun Publikoan likidatu eta ingesatuko dituzte 43. artikuluko a) eta b) letretan ezarri diren ordainarazpenak, noiz-eta, hurrenez hurren, Sozietateen gaineko Zerga eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aitortzeko eta ordaintzeko ezarritza dauden epeetan.

2. 43. artikuluko c) letran ezarri den ordainarazpenari dagokion kuota Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak likidatuko du, Jarduera Ekonomikoen Erregistroan dauden datuen arabera. Ondore horretarako, Nafarroako Gobernuak beharrezko datuak emanen dizkio Ganberari, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga likidatzeko eskumenak dituzten Udaleei ematen dizkien aldi berean.

3. Aurreko zenbakian adierazi diren likidazioak, honako Foru Lege honen 50. artikuluan ezarri diren beharkizunak betez, ondoko era hauetan jakinaraziko dira:

a) 2/1995 Foru Legearen 86. artikuluan ezarri den manuaaren arabera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga likidatzeko jakinarazpena talde bati egin zaionean, Nafarroako Merkataritza eta Indus-

tria Ganbera Ofizialak bere iragarkien oholztan argitaratuko ditu hamabost astegunetan zehar ganberaren baliabide iraunkorraren ordainarazpenari dagozkion likidazioak; aldi berean, iragarkia sartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

b) Arestian aipatu den ordainarazpenaren banakako jakinarazpenak, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak berak egingen ditu edo, horrela hitzartu baldin bada, dagokien udalek, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarenekin batera; azken kasu horretan, halere, bi kontzeptu horiek era egokian bereiztu beharko dira. Hori guztia gorabehera, ganberaren baliabide iraunkorraren ordainarazpenaren likidazioaren aurka jar daitezkeen errekursoak azalduko dira jakinarazpen horietan.

4. Erroldan edo Jarduera Ekonomikoen Erregistroan alta emateak edo ofiziozko sarteak gertatzen badira -Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko arautegian aurreikusi diren horiek, alegia-, artikuluko honen 3. zenbakiko b) atalean ezarri dena aplikatuko da.

5. Nafarroako udalek, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialarekin lankidetzan arituko dira 43. artikuluko c) letran adierazi den ordainarazpenari dagokion likidazioaren zenbatekoaren bilketan; beti ere, Ganberarekin ondore horretarako sinatuko diren lankidetzak hitzarmenetan ezarriko diren termino eta zehaztapenetan.

6. Nafarroako Ogasun Publikoak bildu dituen zenbatekoak emanen dizkio Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari, baina kobrantza kudeaketagatik bildu den kopuruaren 100eko 5a kenduta, dagozkion kuotak borondatezko ordainketa aldian kobratzeko epea bukatu eta hilabeteko epean edo, hala denean, epez kanpoko ordainketa egiten denetik.

48. artikulua.- Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari informazioa ematea.

1. Nafarroako Ogasun Publikoak eta toki entitateek Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren eskuetan utziko dituzte, azken honek eskabidea egin ondoren, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak 49. artikuluan ezarri den likidazioa egiteko behar dituen zergen alorreko datu eta informazio garrantzitsuak.

2. Nafarroako Ogasun Publikoak, edo, hala denean, toki entitateek, bere duten ikerketa edo egiaztatze eginkizunak betez, ganberaren baliabide iraunkorrean eragina izan dezakeen zerbait aurkitzen badute, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari jakinaraziko diote,

aipatu gorabeherak eraso diren akta edo diligenziaren datarik zenbatuko den bi hilebeteko epearen barruan.

3. Subjektu pasiboak Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialarekin lankidetzan arituko dira, eta, Ganberak eskatuz gero, kasu bakoitzean ganberaren baliabide iraunkorraren likidaziorako beharrezkoak diren datuak emango dizkiote Ganberari.

4. Artikulu honetan ezarri dena aplikatuz Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari emanen zaion informazioa isilpekoa izanen da, eta dagozkion administrazio publikoek izendatuko dituzten langile edo agenteek baino ez dute izanen hori eskuratzeko modua. Ganberaren Osoko Bilkurak, hala ere, izango du informazio hori eskuratzeko aukera, bere Barne Araudiaren arabera. Laga diren datu horiek erabiltzeko izendatu diren pertsonen lanbide-sekretua bete behar dute horiekiko, eta zaindu egin behar dute datuok urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoan ezarri dena betetz.

II. KAPITULUA

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak likidazioa egitea eta dirua biltzea

49. artikulua.- Behin-behineko likidazioa.

1. Aurreko artikuluan ezarri denaren arabera, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari eman zaion informazioa kontuan hartuta, erakunde horrek baliabidearen behin-behineko likidazioak igor ditzake eta, hala denean, ordaindu ez direnak eskatu, edo ordaindu diren gaindikinak itzuli.

2. Subjektu pasiboak betetzen ez badu 47. artikuluan ezarri dena, Ganberak, halaber, behin-behineko likidazioa igorriko dio.

50. artikulua.- Likidazioen beharkizunak.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak egin dituen likidazioak subjektu pasiboari jakinaraziko zaizkio, eta beti agertuko dira ondoko datu hauek:

a) Likidazio horien funtsezko elementuak eta horien arrazoiak.

b) Erabiltzen ahal diren inpugnazio bideak, bide horiek erabiltzeko epeak eta zer organori aurkeztu ahal zaizkion.

c) Zorra non ordaindu behar den, epea eta era.

2. Aurreko beharkizunak betetzen ez dituzten jakinarazpenek, dena dela, eragina izanen dute,

subjektu pasiboak berariaz bere burua jakinarazitzat jo duen datatik, errekurtsioa jarri duenetik edo zorraren ordainketa egin duenetik.

3. Subjektu pasiboari eskura eman zaizkien jakinarazpenek, baldin eta ekintzaren testu osoa izan arren beste beharkizunen bat ahaztu badute, sei hilabete igaro ondoren izanen dituzte ondoreak salbu eta epe horren barruan Ganberari akatsa zuzentzeko protesta formalak egin zaionean.

51. artikulua.- Baliabidea biltzea.

Baliabideak xede dituen tributuetarako indarrean dauden arauak aplikatuko dira Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak baliabidea biltzean, borondatezko aldiaren zein derrigorrezkoan; gainkarguak eta korrituak eskatzean; eta geroratzeak eta bermeak ematean, kobratzeko lehentasuna tributuko-kredituei egokitzen bazaie ere.

Ganberaren Barne Araubideari buruzko Erregelamenduak artikuluko honen edukari buruzko prozedurazko alderdiak araupetuko ditu.

52. artikulua.- Derrigorrezko diru-bilketa.

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak ahalmenak ditu ganberaren baliabide iraunkorra premiamenduzko bidea erabiliz eskatzeko. Prozedura hori hasteko eskumena duen Ganberako organoak premiamenduzko probidentzia emango du, eta zordunari jakinaraziko zaio.

Derrigorrezko diru-bilketaren kudeaketa Ganberak egingen du zuzenean edo, bidezko hitzarmenak formalizatu badira, Nafarroako Ogasun Publikoak edo Nafarroako toki entitateek egingen dute.

III. KAPITULUA

Arau-hausteak eta zehapenak

53. artikulua.- Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Arau-haustetzat joko da hurrengo betebeharrak berandu betetzea: ganberaren baliabide iraunkorra osatzen duten ordinarazpenak likidatzea edo ordaintzea, dagozkien epeen barruan.

2. Aurreko zenbakian adierazi diren arau-hausteei hurrengo isunak ezarriko zaizkie:

a) Baliabidearen zenbatekoaren 100eko 10a, baldin eta subjektu pasiboak bere kabuz burutu badu epez kanpoko betetzea.

b) Baliabidearen zenbatekoaren 100eko 20a, baldin eta betebeharrak Ganberaren agindeia jaso ondoren bete badu.

Zenbaki honetan ezarri dena ulertuko da borondatezko ordainketarako epea bukatzen den

egunean hasiko diren berandutza korrituak edo, hala denean, premiamenduagatiko gainkargua eskatzearen kaltetan gabe.

54. artikulua.- Preskripzioa.

1. Ganberaren baliabide iraunkorra osatzen duten ordainarazpenen preskripzioak kasuan kasuko zergei dagozkienak izango ditu arau.

2. Honako hauek etengo dute preskripzioa: ganberaren baliabide iraunkorra dela-eta, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak eginen dituen edo Ganberari eginen zaizkion jarduketek, eta dagokion zergaren preskripzioa etengo duten administrazioaren ekintzek.

IV. KAPITULUA **Etekinen eratzikipena eta loturak**

55. artikulua.- Ganberaren baliabide iraunkorraren etekinen eratzikipena.

Ganberaren baliabide iraunkorraren etekin likidoa, bilketagatiko gastuak kendu ondoren, ondo-ko arau hauen arabera banatuko da:

a) Arestian aipatu den etekin likido osoaren 100eko 6a Ganberen Kontseilu Nagusiari dago-
kio.

b) Sozietateen gaineko Zerga eta Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren kuoten gainerako atala banatu, ordainketa egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoak establezimenduak, ordezkariak edo agentziak zer esparrutan dituen, horako Ganberen artean banatuko da. Establezimendu bakoitzari dagokion edo egotzi zaion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kuota eta subjektu pasiboak aipatu zerga horrengatik ordaindu duen guztizko kopurua elkarrekin zer proportzio duten, bada era horretan. Norbanako enpresarioaren edo sozietate-enpresarioaren egoitzako Ganberari dagokion zatia, hala ere, inolaz ez da izango ganbera baliabide iraunkorreko dagokion kontzeptuaren kuota osoaren 100eko 30a baino gutxiago.

Aurreko lerroaldean ezarri denaren ondoreetarako, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kuota lokalen azalerak egiten duen zerga-elementua sartuz zenbatuko da, eta ez dagokion arautegian aurreikusi diren gainerako gainkarguak edo gehikuntzak.

c) Kopuruen zehaztapena Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak horretarako interesa duten ganberekin taxutuko dituen hitzarmenetan eginen da. Ganberen Kontseilu Nagusiak arbitratu ditzake hitzarmenok.

56. artikulua.- Ganberaren baliabide iraunkorraren etekinen lotura.

1. Ganberaren baliabide iraunkorraren etekinak Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren berariazko helburuak betetzeari lotuko zaizkio.

2. Sozietateen gaineko Zergaren kuoten gaineko ordainarazpenen etekinaren bi herenak, Esportazioak Sustatzeko Ganbera Planaren finantzaketari atxikita daude. Gainerako herena Foru Lege honen 3. artikuluko 1. ataleko f) letran eta 2. ataleko d) letran adierazi diren prestakuntza lanetan eskumenak dituzten administrazioekiko lankidetzat funtzioak finantzatzeari lotuta egonen da.

VI. TITULUA **Araubide juridikoa**

57. artikulua.- Babesa.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren jarduerak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren babespean daude, kanpo merkataritzako oinarrizko legediak Estatu-ko administrazioarentzat gorde duen babesaren kaltetan gabe.

2. Honako administrazio-ahalmen hauek erabiltzea hartzen du babesak: Foru Lege honetan ezarri diren onespen, fiskalizazio, errekurtsoen ebazpen, etendura eta desegitea.

3. Foru lege honek bestelako eperik jartzen ez badu, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hilabeteko epea izanen du, Ganberak eskabide formala egin duenetik zenbatuta, Ganberari bidezko baimena emateko; delako baimen hori eman egin dela ulertuko da baldin eta epe horren barruan horri buruzko berariazko adierazpenik egon ez bada.

58. artikulua.- Errekurtsioak.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak bere dituen eskumen publiko eta administratiboak betez emanen dituen ebazpenen eta hauteskunde araubidea ukitzen dutenen aurkako errekurtsioak jar daitezke; errekurtsio horiek administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioan jarriko dira, Nafarroako Gobernuari administrazio-errekurtsioa aurkeztu ondoren.

2. Ganberak beste eremu batzuetan izanen dituen jarduketak eta, batez ere, lanaren alorrekoak, eskumenak dituzten Epaitegi eta Auzitegietan ebatziko dira.

3. Hori guztia gorabehera, hautesleek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarengana jo dezakete Ganberaren jarduketari buruzko

kexak aurkezteko; bereziki, gutxieneko derrigorezko zerbitzuen ezarpen eta garapenari buruzkoak badira.

59. artikulua.- Informazioa eman beharra.

1. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak, beti ere Barne Araubideari buruzko Erregelamenduan ezarri den epe eta eran, Ganberaren gobernu organoek hartuko dituzten erabakien kopia edo horien laburpenak igorri beharko dizkio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari.

2. Informazioa emateko erantzukizuna duten organoak Ganberaburua eta, hala denean, Idazkari Nagusia dira.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak artikulua honetan aipatu den informazioa zabaltzea edo argitzea eska dezake.

60. artikulua.- Ganberaren jarduera etetea eta Ganbera desegitea.

1. Nafarroako Gobernuak eten dezake Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren gobernu organoen jarduera, baldin eta indarrean dagoen antolamendu juridikoaren aurkako urratze larriak gertatu badira, edo urratze horiek behin eta berriz errepikatu badira eta, ondorioz, biderik onena neurri hori bada; halaber, bide hori aukera dezake organo horien ohiko funtzionamendua ezinezkoa denean.

2. Eteko erabakiak etenaldiaren iraupena ezarriko du; aldi hori gehienez hiru hilabetekoa izanen da; halaber, aldi horretan Ganberaren interesak kudeatuko dituen organoa zehaztuko du erabakiak.

3. Etenaldia bukatu eta eteko arrazoiek lehengo horretan badiraute, Ganberaren gobernu organoak desegiteari eta hauteskundeetarako deia egiteari ekingo zaio, hilabeteko epean.

Xedapen gehigarria

Bakarra. Ganberak, bere Barne Araubideari buruzko Erregelamendua landuko du; Ganberako Osoko Bilkurak Erregelamendua onetsi ondoren, Foru Komunitateko Administrazioa igorriko du, behin betikoz onetsi dezan, Foru Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilabeteko epean, gehienez ere.

Xedapen iragankorrak

Lehenengoa.- Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak egun dituen organoek agintaritzan jarraituko dute agintaldia bukatu arte; Foru Lege honek indarra hartu ondoren, organo horien eginkizunak Foru Lege honek ezarritakoari egokitzearen kaltetan gabe, hala ere.

Bigarrena.- Foru Lege hau indarrean jarriko denean, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren zerbitzura dauden langileei, baldin eta langileok 1993ko apirilaren 13an 1936ko ekainaren 13ko Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusi den plantilan sartuta badaude, Dekretu horretan ezarri den araubide juridikoa aplikatuko zaie.

Gainerako langileei lan-legedia orokorra aplikatuko zaie.

Hirugarrena.- Foru lege honen 43. artikuluan ezarri diren ganberaren baliabide iraunkorraren ordainarazpenak, 1998ko ekitaldian eta hurrengoetan sortuko diren zergeti dagozkien kuota edo etekinen gainean aplikatuko dira.

Xedapen derogatzaileak

Lehenengoa.- Foru lege hau indarrean jarriko denean, indargabetu eginen dira Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari dagokion ganberaren baliabide iraunkorra araupetu duen apirilaren 4ko 6/1995 Foru Legea eta lege berri honetan ezarri direnen aurka doazen lerrun bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Aurreko lerroaldean ezarri denak ez du aldaraziko Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari dagokion ganberaren baliabide iraunkorraren kuoten eskagarritasuna.

Bigarrena.- Martxoaren 27ko 753/1878 eta ekainaren 22ko 816/1990 Errege-Dekretuen bidez aldarazi zen maiatzaren 2ko 1.291/1974 Dekretuak ezarri zuen Ganberei buruzko Araudi Nagusia aplikatuko da, Foru Lege honi edo hura garatzeko eman daitezkeen xedapenei aurkaratzen ez zaion alderdi guztietan.

Azken xedapenak

Lehenengoa.- Nafarroako Gobernuari baime-na eman zaio Foru Lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzen.

Bigarrena.- Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunean jarriko da indarrean.

Nafarroako 1999-2002 lau urteko Estatistika Planari buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako 1999-2002 lau urteko Estatistika Planari buruzko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak Nafarroan estatistika jarduera arautzen duen lege markoa ezarri zuen, Foru Komunitateko errealitate sozial, ekonomiko eta demografikoari buruz behar adina informazio, fidagarria eta alderagarria, edukitzeko helburuarekin.

Lege testu horrek berak arautzen ditu datuak eman eta informazioa erabiltzen dutenen eta estatistika jarduera garatu eta betetzen duen organoaren arteko harremanak, eta datuak eman beharra, emaitzen argitalpena eta zabalkunde egokia eta sekretu estatistikoa izatea ezartzen ditu. Era berean, Estatistika Plana estatistika jarduera sustatu, antolatu eta planifikatzeko tresna egokitzat hartzen du. Jarduera hori Nafarroako Estatistika Sistemak beteko du.

Lege testu honek aipatutako ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean ezarritako aurreikuspenak garatzen ditu eta, halaber, Nafarroako 1999-2002 lau urteko Estatistika Planaren helburua ezartzen du, alegia, erakunde publikoei eta gizarte eragileei, erabakiak hartzeko baliagarriak izanen zaizkien estatistika jarduerak egitea, honako abiapuntu hauekin: ahal den kosturik txikiena eta dauden iturrien probetxamendu handiena, bikoiztasunak saihestuz, herritar, enpresa eta erakundeendako ahalik eta traba gutxien sortuz eta sekretu estatistikoa bermatuz.

Adierazitako helburu orokorra erdiesteko, zenbait alderdi garatzen dira, ekonomia, gizartea, demografia eta ingurugiroari buruzko informazioa zabaldu eta sustatzeari dagokionez, batetik, eta bestetik, Nafarroako Estatistika Sistemaren eten-

gabeko sendotzeari, informazio estatistikoaren zabalkunde bideak bultzatzeari eta estatistika publikoan espezializaturik dauden langileen preskuntzari dagokienez.

Horrez gain, Foru Lege honek Nafarroako Gobernuaren eta entitate publiko zein nazioarteko erakundeen arteko lankidetzaren instituzionalaren harremanak ezartzen ditu, bai eta Nafarroako Estatistika Erakundeak Plan hau betetzen izanen dituen eginkizunak ere.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Nafarroako 1999-2002 lau urteko Estatistika Planak, Foru Lege honek onesten duenak, Nafarroako Foru Komunitateko estatistika jarduera sustatu, antolatu eta planifikatzeko tresna den aldetik, lankidetzaren instituzionalaren markoa zehazten du, zehazki Nafarroako Gobernuaren eta honako hauen artean:

- a) Haren erakunde eta enpresak.
- b) Entitate publikoak.
- c) Erakunde nazionalak eta nazioartekoak.

Lankidetzaren horren xedea da Nafarroako Estatistika Sistema, bere inguruko sistemakiko, koherentsia, homogeneotasuna eta alderagarritasuna lortzen joatea.

2. artikulua. Nafarroako 1999-2002 lau urteko Estatistika Planak, Arau honetan bildutakoak, indarra izanen du 1999ko urtarrilaren 1etik 2002ko abenduaren 31ra bitarte.

3. artikulua. 1. artikuluko a) letran aipatutako entitateek Plan honek eta berau garatzen duten Estatistikako Urteko Programek haien esku utzitako estatistikak prestatuko dituzte, zuzenean edo beste entitate batzuekin elkarlanean.

4. artikulua. Nafarroako Estatistika Erakundeak Estatistika Plana eta Estatistikako Urteko Programak bultzatuko ditu eta helburu horrekin honako eginkizun hauek beteko:

- a) Estatistikako Urteko Programarako proiektuak prestatu eta horien izapidaketa eta onespena bultzatzea.
- b) Nafarroako Administrazio Publikoek Estatistika Planak eta Estatistika Urteko Programek haien esku utzitako estatistika eragiketarako

behar dituzten aholkularitza teknikoko zerbitzuak ematea.

c) Foru Lege honek eta berau garatzen duten Estatistika Urteko Programek haren esku utzitako estatistika jarduera instrumentalak egin edo proposatzea.

d) Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak estatistikak erregulatzeko aurreikusten dituen arau teknikoen proiektuak, Estatistika Planak eta berau garatzeko emandako Estatistika Urteko Programek haren esku utzitakoak, prestatu eta horien izapidaketa eta onespena bultzatzea.

e) Nafarroako Administrazio Publikoek, Estatistika Planak eta Estatistika Urteko Programek haien esku utzitako estatistikak estatistikari buruzko legedia betez prestatzen dutela zaintzea.

f) Nafarroan, informazio eta dokumentazio estatistikoaren inbentarioa egin eta haren mantentimendua egitea.

g) Nafarroako Estatistika Planean sartuta dauden estatistiken jarraipena egitea.

h) Estatistikaren arloan behar diren harremanak sustatzea Foru Lege honen 1. artikuluan aipatzen diren entitateekin.

5. artikulua. Foru Lege honen ondorioetarako, estatistikako jardueratzat hartuko dira:

a) Estatistikak egiteko datuak, kopuruari zein kalitateari begira, bildu, lortu, tratatu eta gordetzea, emaitzak argitaratu eta zabaltzea eta antzeko izaera duen beste edozein, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 1. artikuluan ezarritakoarekin bat.

b) Aurreko letran zehaztutakoen aurretikoak edo osagarriak diren jarduera instrumentalak, legeak eska ditzakeenak edo teknikoki beharrezkoak direnak estatistikaren arloko legediak ezartzen duena bete ahal izateko, hau da, estatistikaren arloko prestakuntza espezifikagoak, ikerketa eta teknika, metodologia eta arauen garapeneko jarduerak.

II. KAPITULUA

Estatistika Planaren Helburuak

6. artikulua. Nafarroako 1999-2002 lau urteko Estatistika Planaren helburu orokorra datu estatistiko multzo koherente, fidagarri eta eguneratua lortzea da, ahal den kosturik txikienarekin, dauden iturrien ahalik eta probetxamendu handienarekin eta bikoiztasunik gertatu gabe, Nafarroako errealitatea, ekonomia, demografia, gizartea, ingurugiroa eta lurraldearen esparruetan, ezagutzeko bide

emanen duena eta erakunde publikoei eta gizarte eragileei baliagarria izanen zaiena erabakiak hartzeko, hori guztia herritarrei ahal den traba gutxien sortuz eta sekretu estatistikoa bermatuz.

7. artikulua. Aurreko artikuluan ezarritako helburu orokorra funtsezko eta oinarrizko irizpidea izanen da Estatistika Plana betetzean esku hartzen duten organo guztiendako erabakiak hartzerakoan, eta Foru Lege honen eta berau bete eta garatzeko ematen diren xedapenen interpretaziorako irizpidetzat hartuko da.

8. artikulua. Helburu orokorra erdiesteko, informazio helburu berariazkoak, bai eta instrumentalak ere, ezartzen dira.

9. artikulua. Informazioari dagokionez, hauek dira helburu berariazkoak:

a) Informazio ekonomikoa handitzea, bilakaera ekonomikoaren jarraipen zehatz eta eguneratua ezarri ahal izateko, lan merkatua eta ekoizpen jarduna hobeki ezagutzeko bide emanen duten estatistiken bitartez.

b) Demografian eta honek beste arloekin duen loturan sakontzea, bereziki lan merkatuari, giza baliabideen prestakuntzari, osasunaren arloko planifikazioari eta biztanleen gizarte ongizateari dagokienez.

c) Estatistika sozialak sustatzea, eta halaber, biztanleen bizi kalitatean eragina duten alderdiak hobeki ezagutzen laguntzen duten adierazleak.

d) Ingurugiroaren arloko estatistikak garatzea, natur baliabideen egoera, ingurugiroaren bilakaera eta bestelako fenomeno ekonomiko eta sozialekin duen lotura zehatz-mehatz ezagutzeko lortzeko.

10. artikulua. Honako hauek dira berariazko helburu instrumentalak:

a) Nafarroako Estatistika Sistemaren artikulazioa sendotzea honakoak bermatzeko: intimitatea gordetzea, sekretu estatistikoa, egindako estatistiken zehaztasuna eta zuzentasun teknikoa, emaitzen zabalkundea eta segurtasuna informazioa gorde eta ematean.

b) Nafarroako Estatistika Sistemaren eta estatuko, Europako eta Administrazio autonomikoetako sistemen arteko lankidetzaren instituzionalaren alde egitea, dauden iturriez baliatu, alderdi guztien intereseko proiektuak egin eta baliabideak aurreztu ahal izateko, bai eta herritarrei eta enpresei informazio eskaerak behin baino gehiagotan ez luzatzeko.

c) Informazio estatistikoa zabaltzeko bideak bultzatzea, Nafarroako estatistika zabalkunderako sistema integratua ezartzeko bide eman eta erabiltzaileek informazioa eskura izatea erraz dezaten.

d) Nafarroako estatistika publikoaren arloko prestakuntza berariazko eta hobekuntzarako behar diren jarduerak betetzea, Nafarroako Estatistika Sistemari sartuta dauden langileei, bai eta beste profesional eta erabiltzaileei ere, metodo, teknika eta iturri estatistikoak hobeki ezagutzeko aukera eman diezaien.

e) Estatistikaren arloko ikerketa sustatzea, alderdi metodologikoetan eta Foru Komunitatearentzat interesa duten gaiak aplikatutakoetan, Nafarroako errealitatea, ekonomia, demografia, gizartea, ingurugiroa eta lurraldeari dagokienez, hobeki ezagutzen laguntzeko.

f) Nafarroako Estatistika Sistemak emandako informazioaren normalizazioa, homogeneotasuna eta alderagarritasuna, Estatu eta Europako sistemarekiko, sustatzea.

g) Nafarroako informazio estatistikoaren lurralde erreferentziak garatzea.

d) Haren metodologiak emaitza fidagarriak eta beste estatistika batzuekiko alderagarriak lortzeko bide ematea.

e) Bidezkoa den kasuetan, aldizka eguneratze-ko aukera ematea.

f) Teknikoki erabili ahal den lurralde bereizketa handienarekin egitea, hori erabilgarritzat jotzen denean.

g) Emaitzak zabaltzeko modua aurreikustea.

2. Estatistika jarduerak horiek Estatistikako Urteko Planetan sartu eta burutuko dira, beti ere aurrekontu eta antolaketako baldintzen arabera.

3. Plana garatuko duten Estatistikako Urteko Programetan zehaztuko da zein diren estatistika jarduerak sendotuen kalifikazioa izanen dutenak, hurrengo Programetan mantentzeko. Estatistika sendotuztat hartuko da errealitatea ezagutzeko balioa eta erabilgarritasuna dituela erakusten duena, estatistikako serie bat sortzen duen aldizkako jarduerak izanik.

Estatistikako jarduerak sendotuen kalifikazioa harturik, artikuluko honen 1. zenbakian ezarritako baldintzak betetzen dituela ulertuko da, hurrengo programetan sartzeko ondorioetarako.

4. Estatistikako Urteko Programetan sartutako estatistika jarduerak Nafarroako Foru Komunitateko estatistika ofizialak izanen dira, eta horiek presartzeko eskatzen diren datuak ematea nahitaezkoa izanen da, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 23. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

13. artikulua. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 28.1 artikuluan aurreikusitakoaren babesean egindako eragiketa estatistikoek aurreko artikuluan araututako eragiketei eskatzen zaizkien baldintzak bete behar dituzte.

14. artikulua. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Estatistika Kontseiluaren txostena eskuratu ondoren, Estatistikako Urteko Programa onetsiko du Programaren urtearen aurreko abenduaren 31 baino lehen.

Estatistikako Urteko Programaren indarraldia urte naturalarena izanen da, baina luzatu ahal izanen da hurrengo onetsi bitartean, haien izaera dela-eta jarraipena beharrezkoa duten jardueren kasuan.

15. artikulua. Nafarroako Estatistika Erakundeak Estatistikako Urteko Programa bakoitzaren jarraipen txostena eginen du Nafarroako Gobernuak onetsi dezan, bidezko baldin bada.

III. KAPITULUA Estatistika Planaren garapena

11. artikulua. Informazio helburu berariazkoak, Eranskinean ageri direnak, Estatistikako Urteko Programen bidez garatuko dira. Programa horiek zehaztuko dituzte urte bakoitzean egin beharreko jarduerak.

Helburu instrumental berariazkoak horretarako onetsiko diren programen bidez garatuko dira.

12. artikulua. 1. Salbuespen gisa, eta sartzen diren programen kokatzeko arrazoiak azalduz, Planean agertzen ez diren eragiketak sartu ahal izanen dira Estatistikako urteko programetan, beti ere baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Nafarroako Estatistika Planaren helburuetarako egokiak izatea.

b) Haien funtsezko osagaiak, bereziki Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 27.2b artikuluan aurreikusitako zehaztapenak, agertzen dituen oinarriko proiektu tekniko bat izatea, bete beharreko jarduerak estatistikoen fidagarritasuna bermatzeko.

c) Aplikatzekoak diren zehaztapen teknikoak lotzea.

Era berean, Nafarroako 1999-2002 lau urteko Estatistika Planaren ebaluazio proposamena eginen du, hura amaitu ondoren, Nafarroako Gobernuak onetsi dezan.

Agiri hauek alde aurretik emanen zaizkio jakitera Nafarroako Estatistika Kontseiluari.

IV. KAPITULUA **Lankidetzaren instituzionala**

16. artikulua. Entitate laguntzaileak izanen dira Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin bi alderdien intereseko helbuetarako hitzarmenak izenpetzen dituztenak.

Aipatutako Departamentuak, Nafarroako Estatistika Erakundearen bidez, eta entitate laguntzaileek beren intereseko informazio estatistikoa luzatuko diote elkarri, bai eta estatistikak prestatzeko behar den aholkularitza tekniko ere.

17. artikulua. Nafarroako Estatistika Erakundearen estatistika jarduerak betetzen dituzten entitate edo erakunde mota guztiei zuzendu ahal izanen zaie, interesgarria deritzonean, Nafarroako 1999-2002 lau urteko Estatistika Planaren ezarritako helburuen kudeaketaren ondorioetarako, ez besterik.

18. artikulua. Nafarroako Gobernuak, lankidetzaren hitzarmenak egin ahal izanen ditu doakien estatu-erakundeekin, gure Komunitatean hartutako laginak hobetu ahal izateko; halako moldez non, haien banaketan ateratzen diren estatistiken adierazgarritasuna egokituko den, Nafarroari buruzko ustiapen osoagoak ahalbidetzeko moduan.

Horretarako, Nafarroako Estatistika Erakundeak zehaztu eginen ditu Estatuan egiten diren azterketa horietatik zeintzuk behar duten lagin-

ta-indartze hori, eta laginketa-neurria handitzeko lankidetzaren hitzarmen horiek ordaintzeko baliabide ekonomikoak. Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren pentzutan izanen dira horiek, edo Nafarroako Estatistika Erakundearen zeinen menpe, harenetan.

19. artikulua. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak lankidetzaren teknikorako akordioak izenpetu ahal izanen ditu 17. artikuluan aipatzen diren entitate eta erakundeekin.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Nafarroako Gobernuak Foru Lege honen indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, gehienez ere, onetsiko du 1999. Urteko Estatistika Programa.

Bigarrena. Nafarroako Estatistika Erakundeak gehienez ere sei hilabeteko epean aurkeztuko dio Nafarroako Gobernuari erakundearen funtzionamendu-planaren diseinua, eta baita beharrezko dituen kostuen eta azpiegituren zenbatespena ere, abian jartzeko plan estrategikoarekin batera, Nafarroako Estatistika Erakundearen gure erdua autonomia erkidego aurreratuenek jada garatu dituzten ereduarekin parekatzeko.

Xedapen indargabetzailea

Foru Lege honetan aurreikusitakoaren kontra doazen maila bereko edo txikiagoko xedapen oro indarrak gabe gelditzen da.

Azken xedapena

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Foru Lege honetan aurreikusitakoa garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

Foru Legea, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegileko IX. Tituluko II. Kapitulua aldatzen duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioei buruzko Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko azaroaren 12an egindako bilkuran, ondoko Foru Legea onetsi zuen: Foru Legea, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegileko IX. Tituluko II. Kapitulua aldatzen duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioei buruzko Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Legea, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegileko IX. Tituluko II. Kapitulua aldatzen duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioei buruzko Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen

ZIOEN AZALPENEA

Europako Elkarteko Kontseiluak 1993ko abenduaren 22an emandako 93/118/EE Zuzentarauak, Kontseiluaren 85/73/EEE Zuzentaraua aldatu du; izan ere, azken hori, 89/662/EEE Zuzentaruaren A eranskinean eta 90/675/EEE Zuzentaruaren agertzen diren abere-produktuei albaitariak egin ikuskapen eta kontrolen finantzaketari buruzkoa zen. Bada, 93/118/EE Zuzentarauak ezarri du, estatu elkartekideek finkatu beharko zituztela haragi freskoen eta haztegiko hegaztien haragien osasun ikuskapen eta kontrolengatik eskuratu beharreko tasak, Zuzentarauak berak ezartzen dituen mailen arabera.

Gero, Kontseiluaren 96/43/EE Zuzentarauak berriro aldatu ditu 85/73/EEE eta 90/675/EEE

Zuzentarauak, baita 91/496/EEE Zuzentaruak ere.

Aurreko horretan esaten dena oinarritzat hartu eta kontuan harturik Europako Batasuneko arau horren azkeneko helburuak hiru xede oinarritzko dituela:

a) Produktuaren osasungarritasunari dagokionez, kontsumitzaileari osasun babes bateratua bermatzea.

b) Produktuak Europako Batasunean batetik bestera libreki ibiltzea, bai Europako Batasuneko estatu bakoitzeko barne merkatuan salgai jarritako kontsumo nazionalerako produktuei, bai hirugarren estatuetatik heldu direnei antzeko kalitatebermeak eskatzen zaizkielarik.

c) Merkatuen antolamendu komuneko arauen menpe dauden produktuen lehiakortasunean desorekei itzuri egitea.

Lortu nahi diren helburuak bete daitezzen, Europako Batasuneko Zuzentaraua betetzeko lege neurri egokiak hartzeko beharra sortu da, eta, hori guztia, aipatu Zuzentaraua Espainiako lurralde osorako ezarri irizpide homogeenen arabera aplikatzea helburua duen arau baten bidez. Politika Fiskal eta Finantzarioaren Kontseiluak ezarri ditu irizpide homogeen horiek Lege Proiektuaren eredu baten bidez.

Horretarako, albaitaritzako ikuskaritza urtarrilaren 29ko 147/1993 Errege Dekretuak, 1993ko martxoaren 13an indarra hartu zuenez geroztik, bateratu dela hartu beharko da kontuan; horren bidez, hain zuzen ere, haragi freskoak ekoiztu eta merkaturatzeko osasun baldintzak ezarri ziren. Errege Dekretu hori otsailaren 23ko 315/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen. Halaber, untxi eta ehizi haragien kasuan, uztailaren 8ko 1543/1994 Errege Dekretuaren bidez bateratu zen; izan ere, horren bidez haragi horien ekoizpen eta merkaturatzeari aplikatu beharreko osasuneko eta osasun poliziako betebeharrak arautu ziren. Hegaztiei dagokienez, urriaren 20ko 2087/1994 Errege Dekretuak, haztegiko hegaztien haragi freskoak ekoiztu eta merkaturatzeko osa-

sun baldintzak ezarri ditu, eta 92/116/EEE Zuzentaraua Estatuko antolamendu juridikoan txertatu du.

Halaber, kontuan hartu behar da, 96/43/EE Zuzentarauak ezartzen duena, hau da: Europako Batasuneko estatuen berezko arautegian ezar daitezkeen murrizketak ezin direla izan aipatu Kontseiluaren 93/118/EEE Zuzentzarauko eranskin-neko I. Kapituluaren finkatu tasa-mailen 100eko 55 baino handiagoak.

Hori horrela, Foru Komunitatearen berezko eskumenen arabera, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegilea aldatzen da.

Artikulu bakarra. Uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegileko IX. Tituluko II. Kapitulari beste idazketa bat ematen zaio. Foru Dekretu Legegile horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioen Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen. Idazketa horrek eduki hau izanen du:

“II. KAPITULUA

Abereen eta aberekien osasun ikuskapen eta kontrol ofizialen tasa

124. bis artikulua. 1. Aplikazio eremua.

Foru Komunitateak tasa hauek eskatuko dizkie bere esparruan abereak hil, kanalak zatikatu, haragia bildu edo abereengan eta aberekietan egoten diren gai eta hondakin zenbait kontrolatzen dituzten establezimenduei.

2. Zergagaia.

Tasa hauetako zergagaia Foru Komunitateko Administrazioak gizakien eta abereen osasuna zaintzeko behar diren zerbitzuak ematea da. Zerbitzu horiek abereen, gizakien kontsumorako haragi freskoen eta bestelako aberekien osasun ikuskapen eta kontrolen bidez eman dira. Kasuan kasuko zerbitzuko fakultatiboek egiten dituzte, bai abereak hil, zatikatu eta hozkailuetan biltzeko lokal edo establezimenduetan, Foru Komunitatean badaude, bai horretarako gaiturik dauden zentroetan, gainerako kontrol eta analisi bidez.

Tributuaren ordainarazpenaren ondorioetarako, zergagaiaren barnean sartzen diren osasun ikuskapen eta kontrolerako jarduerak honela sailkatzen dira:

a) Hil aurreko osasun ikuskapen eta kontrolak, behi, zerri, ardi eta ahuntz, bestelako belarjale, untxi eta lumadun eta iledun ehizi xehe, eta

zaldi/ekidoen azientaren eta haztegiko hegaztien haragi freskoak lortzeko.

b) Haragi fresko horiek lortzeko hildako abereen hil ondorengo osasun ikuskapen eta kontrolak.

c) Establezimenduan eginiko eragiketen agiri bidezko kontrola.

d) Gizakien kontsumorako kanalen, erraien eta barrenkien kontrol eta zigilaketa eta zatikatzeke giletan lorturiko piezen xakiketa eta markaketa.

e) Gizakien kontsumorako diren haragi freskoak biltzeko eragiketarako kontrolatzea, hala ezartzen den unetik beretik hasita, azkeneko kontsumitzaileentzako saltokietan kopuru txikitik egindakoei dagozkienak izan ezik.

f) Abereengan eta aberekietan zenbait gai eta hondakin kontrolatzea, indarra duen arautegiak aurreikusiriko moduan.

3. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira, zergadun diren aldetik, zerbitzua ematea eskatu dutenak, edo hil, zatikatu, bildu edo kontrolatzeko eragiketarako norentzat egiten diren, bada pertsona horiek.

4. Ordezkoak.

Tributua ordaintzera beharturik daude, zergadunaren ordezko diren aldetik:

4.1. Hildako abereen hil aurreko eta ondorengo osasun ikuskapen eta kontrol ofizialei eta gizakien kontsumorako kanal, errai eta barrenkien zigilaketari dagozkien tasen kasuan, aberea hiltzen deneko edo ikuskapena egiten deneko establezimenduen titularrak.

4.2. Zatikatzeko eragiketen kontrolari dagozkion tasen kasuan:

a) 4.1 idazatian zehaztu pertsona horiek berak, zatikatzeke eragiketarako hiltzean berean egiten badira.

b) Nor bere kabuz zatikatzeke eragiketarako egiten dituzten establezimenduen titularrak, gainerakoetan.

4.3. Biltzeko eragiketen kontrolari dagozkien tasen kasuan establezimendu horietako titularrak, ezartzen diren unetik beretik.

4.4. Abereengan eta aberekietan egoten diren gai eta hondakinen kontrolari dagozkion tasen kasuan, kontrol eta analisi horiek egiten direneko establezimenduen titularrak.

Interesatuak aberea bizirik beste bati erosi badio, gero hiltzeko, artikuluko honetako 2. idazatik

f) letran zehazten den kontzeptuari dagokion tasaren zenbatekoa eskatzen ahalko dio.

5. Tributuaren erantzuleak.

Subsidiarioki tributuaren erantzule izanen dira:

– Jarduerak bertan behera utzi dituzten sozietateen administratzaileak, ordaindu gabeko tasei dagokienez.

– Porrot, lehiaketa, sozietate eta entitate ororen sindiko, kontuhartzaile edo likidatzaileak, baldin eta, axolagabekeriak edo fede gaiztoz, egoera horiek eman aitzin sortutako zerga betebeharrak oso-osorik betetzeko beharrezkoak diren kudeaketak egin ez badituzte, zerga betebeharrak dagokien subjektu pasiboei egozgarriak badira.

6. Haragi freskoen eta untxi eta ehizi haragien osasun ikuskapen eta kontrolen gaineko tasen tributu-kuota.

6.1. Tributu-kuota zergadunari eskatuko zaio abereak hil, zatiketa-eragiketak eta bilketaren kontrola egiten diren bakoitzean.

Hori hala izanik ere, hil, zatiketa edo bilketa eragiketa guztiak -edo horietako batzuk- batera egiten badira establezimendu berean, jaso beharreko tasaren zenbateko osoa metatutako aldien kuotena izanen da; artikulua honetako 6.3 idazatian aurreikusiriko moduan eginen da.

Hiltegietan buruturiko hiltze-eragiketetan, abere kopuruaren arabera zehaztuko dira kuotak.

Abereak hiltzen direnean, hil aurreko eta ondorengo osasun ikuskapen eta kontrolerako jardueri, eginiko eragiketen agiri bidezko kontrolari eta kanal, errai eta barrenkien zigilaketari dagozkien tributu-kuotak, behar bezala baimenduriko establezimendu edo instalazioetan hildako abere bakoitzarendako, lauki honetan agertzen diren zenbatekoetan ezartzen dira:

a) Azienda:

Azienda mota	Hildako abere bakoitzeko kuota (pezetetan)
BEHI-AZIENDA	
Larria, kanalean 218 kilotik gora egiten duena	324
Xehea, kanalean 218 kilotik behera egiten duena	180
ZALDI-AZIENDA/EKIDOAK	317
ZERRI-AZIENDA ETA BASURDEAK	
Saltzekoa, kanalean 25 kilotik gora egiten duena	93

Zerrikumeak, kanalean 25 kilotik behera egiten dutenak 36

ARDI ETA AHUNTZ-AZIENDA ETA
BESTELAKO HAUSNARKARIAK

Kanalean 18 kilotik gora egiten dutenak 36

Kanalean 12 kilotik 18 bitarte egiten dutenak 25

12 kilotik behera egiten dutenak 12

b) Haztegiko hegaztiak, untxiak eta ehizi xehea:

Azienda mota	Hildako abere bakoitzeko kuota (pezetetan)
Hegazti heldu astunak, untxiak eta lumadun eta iledun ehizi xehea, kanalean 5 kilotik gora egiten dutenak	2,9
Haztegiko hegazti gazteak, untxiak eta lumadun eta iledun ehizi xehea, gizentzeko badira, kanalean 2,5 kilotik 5 bitarte egiten dutenak	1,4
Haragitako oilasko eta oiloak eta haztegiko beste hegazti gazteak, gizentzeko badira, untxiak eta lumadun eta iledun ehizi xehea, kanalean 2,5 kilotik behera egiten dutenak	0,70
Aurrerako oiloak	0,70

Zatikatu eta biltzeko eragiketetarako, kuota zehaztuko da zatikatu eta bilketa kontrolatzeko eragiketen menpe dagoen tona kopuruaren arabera. Azken horren ondorioetarako, eta zatikatze-ko eragiketetarako, erreferentzi puntutzat hartuko da zatikatu aurretik haragiak duen pisu erreala, hezurak barne.

Zatikatzeko geletan, kanaletatik lortutako piezak etiketatu eta markatzea barne, egindako osasun ikuskapen eta kontrolei dagokien kuota hauxe izanen da: 216 pezeta/tona.

Biltzeko eragiketen kontrol eta ikuskapenari dagokion kuota, 216 pezeta/tona izanen dena, 93/43/EEE Zuzentarauaren Eranskinean aurreikusiriko garapena gertatu delako ezartzen direnetik aurrera eskatuko da.

6.2. Haztegiko hegazti bizidunen osasun ikuspena jatorrizko ustiatzean egiten bada, ikuskapen horri dagokion tributu-kuotaren zatia bertan hartuko da eta 6.1 idazatian ezartzen den kuotaren ehuneko 20 eginen du.

6.3. Establezimendu berean hil, zatikatu eta biltzeko hiru eragiketak -edo horietako bi-, bata bestearen ondoren egiten badira, hots, elkarren segidako faseetan, tasak kuota bakarrean sortuko dira, honelaxe:

a) Hil, zatikatu eta biltzeko eragiketak elkarrekin gertatzen badira, hiltzeko eragiketari dagokion kuota besterik ez da sortuko.

b) Hil eta zatikatzeko edo hil eta biltzeko eragiketak elkarrekin gertatzen badira, hiltzeko eragiketari dagokion kuota besterik ez da sortuko.

c) Zatikatu eta biltzeko eragiketak elkarrekin gertatzen badira, zatikatzeko eragiketari dagokion kuota besterik ez da sortuko.

Arestiko kasuetan, hartu beharreko tasek haieriko eragiketa bakoitzari dagozkion tributu kuoten batura adina eginen dute; hori horrela izanen da, eragiketa guztiak establezimendu berean eginda ere, hala lokalen egoerak nola eragiketa horiek burutzen direneko denborak ez duten biderik ematen ahalmena duten teknikariek haiek guztiak kontrolatzeko, betiere horietariko bat kontrolatzeko eskuarki beharko litzatekeen denbora gainditu gabe.

6.4. Azienda hiltzen diharduten establezimenduen titularrek langile laguntzaileen kostua kentzen ahalko dute. Kostu horrek, gehienez ere, 848 pezeta/t. eginen du, abastuko abereendako, eta 152 pezeta/t. haztegiko hegazti, untxi eta ehizi xehearendako. Horretarako, kenketa hori hildako abelburu bakoitzeko diru-kopuru hauek aplikatuz kontatzen ahalko da:

Abelburuak	Laguntzaileek eraginiko gehieneko kostuak (hildako abelburu bakoitzeko)
Behi-azienda larria, kanalean 218 kilotik gora egiten dutenak	125
Aratxeak, kanalean 218 kilotik behera egiten dutenak	86
Zerriak eta basurdeak, kanalean 25 kilotik gora egiten dutenak	36
Zerrikumeak eta basurdeak, kanalean 25 kilotik behera egiten dutenak	10
Arkumeak eta bestelako hausnarkariak, kanalean 12 kilotik behera egiten dutenak	3,2
Arkumeak eta bestelako hausnarkariak, kanalean 12 kilotik 18 bitarte egiten dutenak	7,3

Ardi-azienda larria eta bestelako hausnarkariak, kanalean 18 kilotik gora egiten dutenak	9
Antxumeak, kanalean 12 kilotik behera egiten dutenak	3,2
Ahuntz-azienda, kanalean 12 kilotik 18 bitarte egiten dutenak	7,3
Ahuntz-azienda larria, kanalean 18 kilotik gorako egiten duenak	9
Behor-azienda	70
Haztegiko hegaztiak, untxiak eta ehizi xehea	0,25

6.5. Hurrengo kasuetarako gehituko dira 6.1 idazatian adieraziriko kuotak, aipaturiko portzentaietan:

a) Ikuskapenak eta kontrolak arratsaldeko orduetan, ezarritako lanaldia bukatu ondoren, egiten badira: % 10.

b) Ikuskapenak eta kontrolak gaueko orduetan egiten badira: % 20.

c) Ikuskapenak eta kontrolak larunbatetan egiten badira: % 30.

d) Ikuskapenak eta kontrolak igande eta jaiegunetan egiten badira: % 50.

Orduak eta egunak metatzen ahal dira.

Jaieguneko eta gaueko orduak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileendako ezarriak direnak dira.

7. Abere bizidunengan eta abereketan egoten diren gai eta hondakin batzuk kontrolatzeko tasen tributu-kuota.

7.1. Hiltzeko diren abere bizidunengan eta haien haragietan egoten diren gai batzuen osasun kontrolengatik eta hondakin batzuen ikerketengatik -artikulu honetako 6. idazatian aipatu bezala-, arloko osasun erregelamendu teknikoetan aurreikusiriko analisi metodoen arabera eginak: hiltzeko eragiketaren ondoriozko tona bakoitzeko 216 pezeta izanen da kuota, kuoten kitapenari buruzko arauekin bat.

Hartu beharreko tasaren zenbatekoa, abereen hilketaren ondoriozko kanalen batezbesteko pisu nazionalaren gainean ere ezartzen ahalko da, eskala honen arabera:

Abelburuak	Abelburu bakoitzaren kuota (pezetetan)
Behi-azienda larria, kanalean 218 kilotik gora egiten dutenak	55

Aratxeak, kanalean 218 kilotik behera egiten dutenak	38
Zerriak eta basurdeak, kanalean 25 kilotik gora egiten dutenak	16
Zerrikumeak eta basurdeak, kanalean 25 kilotik behera egiten dutenak	4,2
Arkumeak eta bestelako hausnarkariak, kanalean 12 kilotik behera egiten dutenak	1,4
Arkumeak eta bestelako hausnarkariak, kanalean 12 kilotik 18 bitarte egiten dutenak	3,2
Ardi-azienda larria eta bestelako hausnarkariak, kanalean 18 kilotik gora egiten dutenak	4
Antxumeak, kanalean 12 kilotik behera egiten dutenak	1,4
Ahuntz-azienda, kanalean 12 kilotik 18 bitarte egiten dutenak	3,2
Ahuntz-azienda larria, kanalean 18 kilotik gorako egiten duenak	4
Behor-azienda	32
Haztegiko hegaztiak, untxiak eta ehizi xehea	0,35

7.2 Akuikulturako produktuetako gai eta hondakin batzuen kontrolagatik, 16 pezetako kuota hartuko da tona bakoitzeko.

7.3. Esneko eta esnekietako gai eta hondakinen ikerketak kuota hau sortuko du, lehengai gisa erabiliriko esne gordinagatik: 3,20 pezeta/1.000 litro.

7.4 Arraulzketako gai eta hondakin batzuen kontrolagatik 3,20 pezetako kuota hartuko da tona bakoitzeko.

8. Sortzapena

Ordaindu behar diren tasak abereen eta aberekien osasun ikuskapen eta kontroleko jarduerak egiten direnean sortuko dira, horiek garatzen diren establezimendu edo instalazioetan, alde zuzenik ordaindu beharra deusetan galarazi gabe, osasun kontrola subjektu pasiboak, zordunak edo ordezkioak eskaturik egiten bada.

Establezimendu berean, interesatuak eskaturik, abereak hil, zatikatu eta biltzeko hiru eragiketarik -edo horietariko bi- bata bestearen ondoren egiten badira, hots, elkarren segidako faseetan, tasaren kopuru osoa prozesua hastean ezarriko da, denak batuz, kasuan kasuko kuotak noiz sortu ziren kontuan hartu gabe eta 6.3 idazatian aurreikusirikoa deusetan galarazi gabe.

9. Likidazioa eta dirusarrera.

Tasak likidatu eta haren dirusarrera egiteko, subjektu pasibo ordezkioek autolikidazioa egin beharko dute; hain zuzen ere, aurreko hilabete naturalean sortu tasen autolikidazioa, hilabete bakoitzeko lehen hogeit egun naturaleko epean egingen da.

10. Tasa jasanaraztea.

Laugarren idazatian aipatzen diren ordezkioek tasak jasanarazi beharko dizkiete 3. idazatian aipaturiko subjektu pasiboek, tasen zenbatekoa fakturan kargatuta.

Ondorioa zerbitzua ematen den egunean gauzatuko da.

11. Erregistroko liburu ofiziala.

Tasak ordaindu behar dituzten establezimenduen egindako eragiketarik, sortutako tasak eta egindako likidazioak liburu ofizial batean erregistratu beharko dituzte. Osasun Departamentuak gaitu eta baimenduko du liburu hori. Betebehar hori betetzen ez bada, tributu-zehapenak jarriko dira, ustategietako titularren jokoerak osasun arloan tipifikatzerakoan zehatz daitezkeenak edozein izanik ere.

12. Beste xedapen batzuk.

1. Tasa ez zaie zuzenean edo zeharka hirugarrenei itzuliko haragiak esportatzen badira.

2. Foru Lege honen ondorioetarako, hildako abelburu bakoitza pezetetan emateko batezbesteko pisuak hauek dira:

Azienda mota	Batezbesteko pisua, kanalean (kilogramotan)
Behi-azienda larria, kanalean 218 kilotik gora egiten dutenak	258,3
Aratxeak, kanalean 218 kilotik behera egiten dutenak	177,3
Zerriak eta basurdeak, kanalean 25 kilotik gora egiten dutenak	74,5
Zerrikumeak eta basurdeak, kanalean 25 kilotik behera egiten dutenak	20
Arkumeak eta bestelako hausnarkariak, kanalean 12 kilotik behera egiten dutenak	6,7
Arkumeak eta bestelako hausnarkariak, kanalean 12 kilotik 18 bitarte egiten dutenak	15

Ardi-azienda larria eta bestelako hausnarkariak, kanalean 18 kilotik gora egiten dutenak	18,8
Antxumeak, kanalean 12 kilotik behera egiten dutenak	6,7
Ahuntz-azienda, kanalean 12 kilotik 18 bitarte egiten dutenak	15
Ahuntz-azienda larria, kanalean 18 kilotik gorako egiten duenak	18,8
Behor-azienda	145,9
Haztegiko hegaztiak, untxiak eta ehizi xehea	1,6"

Xedapen iragankorra

Biltzeko eragiketen kontrol eta ikuskapenari dagokion tasa ez da ordaindu behar 96/43/EE

Zuzentarauaren Eranskinean aurreikusiriko garapena gertatzen ez den arte.

Azken xedapenak

Lehena. Maila bera edo apalagoa duten xedapen guztiak indarrrik gabe uzten dira, Foru Lege honetan ezarritakoari aurka egiten badiote.

Bigarrena. 1. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

2. Aurreko atalak xedatua gorabehera, Foru Lege honetan aurreikusitako tasen ordainarazpenaren hasiera, Erregelamendu batetan finkatuko da, Foru Lege hau garatzeko onesten den Erregelamenduan finkatu ere, autonomia erkidegoetan eskatzearen korrespondentzian.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua ezarri zuen jarduera ekonomikoen gaineko zerga urtero ordainduko dela, zenbateko osoa batera.

Hori karga bat izaten da ordaindu behar duen subjektu pasiboarentzako eta zailtasun bat Udalarrentzat; izan ere, arazoak izan baititzake zenbatekoa borondatez ordaintzearekin, jendea ohituta dagoelako zerga berriak ordeztu duen zergaren zenbatekoa bitan, sei hilabetez behin, ordaintzera.

Oztopo horiek saihesteko, proposatzen da aurreikusitako araubidea gainditu eta beste bat ezartzea zergapekoentzat erosoagoa -toki entitateen dirubiltzea kaltetu gabe-; izan ere, ordainketa

ezarritako kuoten hainbanaketa giratuz egin baitaiteke.

Artikulu bakarra. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 155. artikuluko lehenbiziko bi idazatiak honela idatzirik geratuko dira:

“1. Zergaldia urte naturala izanen da eta hari egokituko zaizkio tarifetan ezarritako kuotak.

2. Toki entitateek kuotak hainbanatu ahal izanen dituzte seihileko osoetan. Kuotak, errezibuz eskatuko dira, eta seihileko natural bakoitzaren lehen egunean izanen dute sortzapena, erditik eginda; salbuespen batekin, ordea: alta ematen denean, jarduera hasten den eguna urte naturalaren hasierarekin bat ez badator, kuotak hiru hilabetea proportzionalki kalkulatu dira eta urtea akitu bitartean gelditzen diren hiruhilabetekoak kobratuko dira, jarduera hasten denekoa ere sartuz.

Halaber, jarduerari utzi eta baja aurkeztuz gero, kuotak hiruhileko naturala hainbanatuko dira, beti ere uztea gertatzen den hiruhilekoa barne. Xede horrekin, subjektu pasiboek jarduera horretan aritu diren hiruhileko natural osoei dagoen kuotaren parte itzultzea eskatzen ahalko dute.”

Azken xedapena

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosako barrutiko derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzako ikasleak Eskola Garraioari buruz egiteke dagoen Planean sar ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 1998ko azaroaren 12an egindako bileran, ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosako barrutiko derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzako ikasleak Eskola Garraioari buruz egiteke dagoen Planean sar ditzan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Lodosako barrutiko derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzako ikasleak Eskola Garraioari buruz egiteke dagoen Planean sar ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua premia-tzen du Lodosako barrutiko derrigorrezkoaren ondo-ko hezkuntzako ikasleen egoera Eskola Garraioari buruz egiteke dagoen Planean sar dezan; hain zuzen ere, Parlamentuak Gobernua premia-tu du, Plan hori hiru hilabeteko epean egin dezan.

Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat jarduketa burutu dezan N-232 errepidean, Castejondik Cortesa bitartean

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK ONETSIA

Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak, 1998ko azaroaren 6an egindako bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat jarduketa burutu dezan N-232 errepidean, Castejondik Cortesa bitartean." Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat jarduketa burutu dezan N-232 errepidean, Castejondik Cortesa bitartean

1. Nafarroako Gobernua premia-tzea proiektu egoki bati ekin diezaion 1999ko urtean, N-232 errepidearen Castejón-Cortes zatiaren trafikoari behin betiko konponbidea emateko.

2. Nafarroako Gobernua premia-tzea 1999 eta 2003 urteen bitartekoetako aurrekontuetan kon-

tsignazioa egin dezan proiektua eta haren gauza-
tzea ordaintzeko.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea ahal
bezain laster saia dadin Ministerioaren eta emaki-

dadunen lankidetzaz lortzen; zertarako eta, hala
bada, egungo autopistak eta etorkizuneko autobia
Castejon-Cortes inguruko eskualdearen errepide-
soluzioan txertatzeko.

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da, hondakin toxikoak edo/eta arriskutsuak erretzeko jarduerentzako baimenik eman ez dezan

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK ONETSIA

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta
Ingurugiro Batzordeak, 1998ko azaroaren 11n
egindako bilkuran, ondoko ebazpena onetsi zuen:
“Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua
premiatzen da, hondakin toxikoak edo/eta arrisku-
tsuak erretzeko jarduerentzako baimenik eman ez
dezan.” Biltzarreko Erregelamenduko 112. artiku-
luan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko
Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da, hondakin toxi- koak edo/eta arriskutsuak erretzeko jar- duerentzako baimenik eman ez dezan

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako
Gobernua premiatzen du beharrezko administra-

zio eta arau jarduketei ekin diezaien, 1999ko urta-
rrilaren 1etik aitzina, baimenik eman ez dezan
hondakin toxikoak edo/eta arriskutsuak erretzeko,
Nafarroako Foru Komunitatean.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako
Gobernua premiatzen du hondakinen tratamen-
dua produktu toxiko edo/eta arriskutsuen erraus-
ketan oinarritzen duten proiektu guztiak azter
ditzan, horien gaur egungo garapen- edo izapida-
tze-egoera edozein delarik ere, Erabaki honen
irizpideei egokitzeko.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako
Gobernua premiatzen du bost urtebete baino
gehiago izanen ez den epea eman dezan, gaur
egun baimena duten errausketek euren jarduera
egoera berrira egokitu dezaten.

Ebazpena, Augusto Pinochet Chileko jeneralaren estradizioari buruzkoa

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan
ezarritakoa betez, “Augusto Pinochet Chileko
jeneralaren estradizioari buruzko Ebazpena”,
Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne
Batzordeak, 1998ko azaroaren 11ko bilkuran one-
tsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean
argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 9an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Augusto Pinochet Chileko jeneralaren estradizioari buruzkoa

1.- Nafarroako Parlamentuak irmoki gaitzesten
ditu Gizadiaren aurkako krimenak eta Giza Esku-
bideen zapalkuntzak, edonon gertatzen direla ere,
legezko itxura eduki lezaketen arren, eta espreski
agertzen du Txile eta Argentinako biktimekiko
elkartasuna.

2.- Nafarroako Parlamentuak bere oniritzia eta begirunea agertu nahi ditu Espainiako Justiziak buruturiko jarduketa judizialekiko; halaber, Estatu-ko Fiskaltzaren jardun oztopo-jartzaileak kezka eragiten diola eta jardun hori Demokrazia batean arrotz gertatzen dela adierazten du.

3.- Nafarroako Parlamentuak Gizadiaren aurkako krimenak zigorrik gabe utzi ezin direlako uste

osoa duela azaltzen du; horregatik, nazioarteko Auzitegi penal iraunkor bat eratzearen aldekoa da.

4.- Nafarroako Parlamentuak erabaki honen kopia bana bidaliko die Diputatuen Kongresuari, Espainiako Gobernuko Lehendakariari eta komunikabideei.

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 54. artikulua aldatzeko proposamena

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 1998ko azaroaren 12an egindako bileran, «Askotariko» Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 54. artikulua aldatzeko proposamena aintzat hartzea erabaki

zuen. Proposamen hori 1998ko urriaren 27ko 82 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía
